# JUSTUEN ISPILLU ARGUIA

Santuen Erretrato bicia:

## SANTUCHO GAZTE BIREN,

# S. LUIS,

## TA S. ESTANISLAOREN

Miragarrizco bicitzaren Berrion laburrac:

ETA SANTUCHO GOZO bien Bederatziurrenac:

GAZTEEN PROBECHUraco Jesusen Compañiaco A. Agustin Cardaberazec ematen dituenac. 1764. urtean.

BEARDAN BEZALA.

*Iruñeco: ANTONIO CASTILLAren echean.*

# SARRERA.

## SANTU BIEN ANTZA, Gaindiac, edo Egcelenciac.

1

LUis, ta Eſtanislao Je-ſus-en Compañiaco Joia preciatu biac, egun batean canonizatuac, edo Aldaretan iſiñiac, lurreco Ainguеru gar-

biac, ceruco inocenciaz, ta virtutez ederqui janciac, dira gure Compañian, araco Salomonen Templоan Porticu, edo Atarico Leorpea beren gañean ceucaten Coloma, edo Pillare biac. Biac dira araco Religioaren Santa Santorum barrenean ſarturic ceuden Serafin biac: beren amorezco egoac aimbeſte zabaldu cituztenac: Arca Miſteriosoa eſtaltcen zutenac: eta Jauna adoratu, ta ceruco Compañia glorioſora ariñ bolatu zutenac. Biac dira gure Compañiac lenengo ofrendatu cituen Propoſicioco Ogui biac, edo bere Seme Santuen doaiezco ta virtutezco Primicia ſagraduac.

2 Biac Jaunaren graciazco Marabilla andiac, beren bicitzan Aiñguerutzat lurrean iduqui ta ezagutuac, ta orañ ceruan Santutzat adoratuac. Biac munduan Nobleciaric andienecoac, ta, antziñaco Andiecheetaco Semeac: Eſtanislao Poloniaco Palatinoetacoa: Luis Italico, Principe Soberanoetacoa. Biac chiquitatic eſpiritu garbiaquin ceruco uſai ſuavea alde gucietara banatzen zutenac. Biac Lore eder zurigorri, lur gaiſto onen arantza latzen artean jaio, aguertu, ta aciac. Biac, ſeglare cirala ere, Religioſoen bicitza eguin zutenac. Biac Ama Virgiñaren dei claroaz, Jeſus bere Semearen Compañiara deituac.

Biac

Biac dicha ori logratzeco arazo, pena, ta neque gogorrac icusi, ta igaro cituztenac. Biac beren Aide poderosoctatic, ta orien munduco cariño itsu, ta guerra biciagatic Jaincoari cer ofrecitu asco izandu zutenac. Biac beren emezortzi urteronz gure Religioa onratu zutenac. Biac Eleiza virtutez beren bicitzan, ta mundua milagroz eriotzan bete dutenac. Biac bata bestearen ondoren lurrean jaioac. Estanislao cerura igozan urtean. Luis jaio, edo aguertuzan lurrean. O ceruco izan argui, Santu pare eder, ta paregabea!

# SAN LUIS GONZAGA GAZteen Ispillua.

## *SANTUAREN ERRETRATOA, TA Pribilegioac.*

3 SAn Luis izanzan Aurcho alde gucietara prodigioso bat, eta S. Joan Batistac bere Amaren Sabelean alegriazco saltoac eman cituen bezala, Luisec ceruco joia escogituac bezala Amari Sabelean sentitu zuenetic, virtuteen amorezco seńaleac eman ciozcana.

Luis izanzan Aurcho Jaincoaren escuac bere contura artu zuena, eta jaio baño ere len. Munduan

sartu

ſartu nai ezpalu bezala, Jaunaren gracia bidera irteten ezpacitzaion: eta Eſpiritu Santuaren doai ori bateoco ur garbian artcen ezpazuen. Ala graciazco erremedio divino onec Luiſen, ta bere Amaren bicitzac irriſcu anditic libratu cituen.

Luis izanzan Aurcho Eſpiritu divinoaren ſugar bici, ſuaveac bezala, beſoetan artcen zutenen bioztac bereala devocio gozo batean irazaqui, ta urtutcen cituena.

Luis izanzan Santu bat Jaunaren arguia artu ezquero, gorputz, edo araguia, afligitceco baicen, zuela etciequiena.

Luis

Luis Job ſantuaren guiſa izanzan, andreri arpeguira ez beguiratceco leguea bere beguiai aguindu ciena: bai eta andrearen guereicetic igues eguitea ere eracutſi zuena.

Luis izanzan ondo gazterio, Echeco Principadua, ta Coroa bere burutic quendu, ta Jeſu Chriſtoren oñetan utci zuena.

Luis izanzan Jeſus maiteari biotzeco laztan eſtu bat emateco, bere Ondaſun, da Anditaſunac, Senideac, eta Guraſoac, bai ta orien memoria ere, pocic larga cituena.

Luis izanzan, Religioan añ umill ſartu baño ere lenagotic, ceruco inocenciaren, ta lurreco peniten-

cia-

ciaren erretrato bici bat, munduco penetan, ta bere gorputz garbiaren arqui al citzan tormentuetan, Martiri miragarri bat eguiñic, bere Jaunaren amorez, ta miñez beti iltcen bici izanzana.

Luis izanzan Girasol eder bat, Jesus bere Eguzqui divinoari amoriozco Sacramentuan, lurreco goraberen artean beti giraca jarraitu ciona, ta bere biotz guztia Jesusen Biotzac ebatsi ciona.

Luis izanzan Ama Virgiñaren Semeric erregalatuena, bere dei amorosoaz gure Compañiara eracarri, ta emen sartu, ta fortuzuena.

Luis izanzan caridadezco Martiri

tiri efcutatu prodigiofo bat : bada caridaderic fiñenaren ezpata zorrotzac izurri, edo pefteaz iltcen ciranai laguntcen, Luifi bicia quendu, ta betico bicira, edo ceruco gloriara bialdu, edo aldatu zuen.

Luis izanzan Principe gai doatfu bat, anciñaco bere Gurafoetatic Noblecia, ta Ondafun andiac cituena, ta ariñago cerura igotceco oriec utzi, ta andic bere ondorengo Aideac Noblecia, onra, ta Ondafun andiagoaz bete cituena : eta azquenic dicha andiaz, S. Luis, ta S. Eftanislaoren Aideac odol batecoac eguin ciran.

4 Bere efcuticaco Doai eftimagarri oiequin bere Luis' Jaincoac

coac ſeñalatu, ta gure Religiora bialdu zuen. Len, da guero onen bicitzan gende gazte, ta Criſtau gucienzat eguiazco Santidadearen berariazco Iſpillu, edo Imagina bici bat, Jaunac gure beguien aurrean paratu naizuen. Eta eguia eſatera, Santuen artean, bear bada aſco izango eztira Luiſen guiſacoac, edo erraz, ta guztienzat, virtuteraco traza ederrago, edo molde egoquiago diranac, S. Luis chit ſuavea, ta chit maitagarria dan baño.

5 Santu onen bicierari campotic, edo aguirizan azalari beguiratcen badiozu, munducoen beguiac betetcen dituen gauza an-

dirie

diric icusico eztezu. Guiza artean ots asco, ateratcen duten eguiteco nabarbenetan S. Luisec jardun etzuen, bada gaztea, edadearen lorean ceruac eraman cigun. Baña Jaunaren graciac prestatua bezala, bere bici, laburrean, ta egunoroco gauza chiquietan Santidade andi baten moduric egoquiena beti gorde zuen: Luisen virtutea etcegoen gauza andi asco eguitean, baicen bere estaduco gauza chiquiac espiritu andiaz eguitean. Espiritu Divino barrengo erregla zucenaz gobernatuzan: argatic filigranazco virtute fiña, mea, ezcutatu, barrencoia onen bicia izantzan.

6 Ce-

6 Ceruco lecio, ta bearren au Luiſec ematen dizu: zure devocio, ta obra ſantuetan munduaren beguietatic igues eguiten eracuſten dizu: Santidadea eztala campotic, ezpada barrendic, edo biotzeco intencio garbi, ta amorio ſantuan dagoela. Camporonzco obra andiac barrengo eſpiritu ori gabe, anima gabeco gorputza bezala dira. Zure dicha eztago gauza andiac aguirian eguitean; ezpada egunoroco gauza chiqui jaquiñac, zure eſtaduac beti daraman ori, Jaincoac ala naiduelaco, ondo eguitean: zure lan, edo bear gucietan, lurreco trabaju, ta guruteeac, Jaunaren icenean eramatean:

zure progimoac, ta are gueiago cere burua ſufritcean.

7 S. Luiſen eſpiritu ſuavea beti bat, berdiña, gucian igo ala izanzan: bere vorondatea gucian ucatu, edo mortificatu, ta Jaincoarena gucian billatu, ta eguitea: Jeſuſen antceco eſpiritu naſgabe, garbi, umill, ezcutatu, gozo, maitagarria izanzan. Luis Jeſus maitearen Biotzean beti bicizan: or bearren dan paciencia, ta amorezco lecio ori icaſi zuen: orrietan firme beti egonzan. Zu ſeguru, ta bentaja andiaquin ſalvatceco bearren dezuna da Santuac bezala, zure burua egunoroco gucietan ucatu, zure eſtaduco

co gurutcea egunoro artu, ta Jesus onari biotz guztiaz jarraitu: onen beguietan, onen ondoren beti ibilli. Beste gabe S. Luis dembora guchian, oguei ta iru urterequin alaco Santidade altura igozan añ goiz, añ laster, añ ariñ Jaunac eraman zuen, eta bere egun andi señalatuan, edo orañ Jesusen Biotzeco Solemnidadea celebratcen degun egunean.

8 Onetan S. Luis Cristau gucien egemplar, edo traza paregabea izanzan: eta zuc iracurlea, Jaincoaren aurrean aitzaquiaric eztezu, Jesusen Biotzeco Escola onetan beraren anteceo amore, paciencia, ta lurreco goraberen

ar-

artean, Santuaren animaco igaldade, sosegu, ta paquea ez icasteco. Paque au gabe lurrean gauza onic izango eztezu: munduco bullicioen artean, Jaunaren paque ori arquituco eztezu. Onen espiritua paquetsua, edo paque zalea da, ta Jesus escutatuaren Biotzean, ta zure barrenean. S. Luisec bezala arquituco dezu.

9 Orregatic, bere Biotzeco cutun, edo prenda estimatua bezala Jaunac bere onra, ta gloria andiaz ceruco Principeen artean coroatu zuen, eta Santu añ miragarria ceruan da lurreã eguin zuen. Aita Santuac ere admiracio andien artean S. Luisen inocencia, intencio,

cio, ta amorio miragarriaren espiritu virtutez apañdua, ta onen Milagro guziz asco, ta andiac icusiric, alabantza, ta pribilegio chit particularez onratu dute. Estudianteen Egemplar, eta Patroi eguin dute: eta beste Santuac ez bezala, bere sei Igandeetaco Devocioa S. Luisi eguiten diotenai sei egun orietan Indulgencia Plenaria emandie. S. Luis suave gozatsuaren devocio au gure alde oietan sartuda. Egercitante asco Santu onen Bicitza, Milagroac, ta Jesusen Biotzari cion amore, ta devocioa iracurri, eta chit onen devotoac gueratu dira. Au Euscal dunac jaquin dezaten, Santua-

tuaren Bicitza eman nai diet.

## SAN LUISEN JAIOTZA, TA aciera.

10 SAn Luisen Gurasoac izan ciran Don Ferrante Gonzaga, ta Doña Marta Tana. Aita Erromaco Imperio Sacroan Principe Excelentissimoa, eta Españaco Grandea, ta Ama Palacioco Dama, ta Erreguiñaren confianzaric andieneco cutuna zan. Oiec Madriden, Erregue Don Felipe, ta Doña Isabel Erreguiñaren cuit contentu andiaz, ta biac Apaidin cirala ezcondu ciran, eta Trentoco Concilio sagraduaz batean Es-

pañan lenengo eguinzan Ezcontza, au izandu omenzan : ta Doña Martac Ezcontza Jaincoaren gustora eguiteco, Meza asco Trinidade santissimoari, Espiritu Santuari, Ama Virgiñari, ta Ainguerüai esan erazo cituen. Ezcontza eguin zanean, gogo chit santu biei bat artu zuen, andic aurrera biotz guztitic Jaincoa servitzeco.

11 Erreguiñac Doña Marta berequin naizuen, baña pena andiaz bazan ere, onra, joia, ta erregaloz beteric Erregueen estimacio andian, Madridtic beren Marquesadura Senar Emazteac joan ciran, ta beren Estaduac gobernatzen asi ciran. Emen Doña Martac

bere

bere paque, ta bacarrean Jaunari biciro erregutzen cion, arren eman ciozala ſeme bat bera Religioan oſoro ſerbitzeco, ta guztia Jaincoarena izateco. Onen oracioá aditu zuen Jaunac: eta Ama bere Semean dicharic andienecoa eguin zuen. Bera Religioan ſerbitzeco Luis eman cion, eta Amac gure Compañian ſartzeco lagundu cion, ta andic laſter bere ſabeleco Seme maitea Santu eguiñic icuſi, ta Aldarean adoratu zuen. O Ama paregabea, ta bearbada bigarrenic munduan izandu eztuena! Amac bere Semea Aldarean icuſtea!

12 Dicha andieneco Ama onec zazpi ume eguin cituen, eta

Nagusiena, Lenijaio edo Primua gure Luis izanzan: au jaiotzeco eguna etorri zanean, alaco doloreac artu zuten, non Medicuac etsiric ceucaten, Ama, ta umea erremedio gabe illco cirala. Doña Martac bere eriotzaco estuan, Senarraren licenciarequin Loretoco Ama santissimari, promesa eguin cion bere Eche santura joango zala, baldin libratzen bazuen. Voto au eguin da bereala aurra jaiotzen asizan, ta ill zedin bildurrez, emaguiñac lasterca bateatu zuen, eta Jaincoaren gracia artu zuen bezala, Luis erraz jaio, ta Ama sendituzan: eta onec bere semea Gurutze santuaren señaleaz armatu

zuen, eta Jaunaren bendicioz bete zuen.

13 Bere Luis maitearen aciera Amac chit bere contura artu zuen, eta lenengo itzac, JESUS MARIA esaten, guero ciñatzen, da oracioac berac eracutsi ciozcan. Chiquitatic onela aci, ta Luisen devocio, modestia, ta Jaunaren bildurra echecoac beti icusi zuten: eta aurra besoetan artzen zutenac bereala barrengo devocio gozo bat sentitzen zuten: eta ascoc au guero juramentuaz seguratu zuten. Pobreai chit asco nai cien, eta alzuen limosna eguiten cien. Bera ia cibillenean ascotan Oratoriora joan, eta erretiroan

sar-

ſartu oizan. Santuaren ſeñale oiequin, da Amaren conſuelo andiarequin Luis acizan.

14 Lau urtetic aurrera Aitac Soldaduen artera eraman zuen: eta an polvoraren artean peligro andietatic Jaunac libratu zuen. Gueroago, cer eſaten zuen etciequiela, Soldaduai aditutaco itz libre, edo izcuntza char batzuec eranſi citzaiozcan. Baña bere Aioac abiſatu zuen ezquero, ſeculaco utzi cituen: eta lotſa, ta bildur chit andia artu zuen. Luiſec bere Maiſu, edo Confeſorecari Erroman eſancionez, aren bici guztico culparic andiena au izanzan, ta onegatic negar aſco eguin zuen.

15 Zazpi urtera zaneco Luisen animari Jaincoac argui andi bat eman cion bera ezagutceco, ta biotz guztitic amatceco: ala puntu artatic, pribilegio andiaz, Jaunari betico bere burua aguindu cion. Luis ezagutu zuten Guizonic andien, ta jaquinsuenac, Jaunaren arguiaz esan zuten, Luis beti santua, edo Jaincoaren gracian confirmatua izanduzala. Eleiza batean Luis cegoela gaizquiñac esan zuten: Ara aurcho bat: Arc bai cerura bear, duela, ta gloria andia izango duela. Au aditu ta guciac arritu ciran, ta Castellon gucian deabruen esan ori banatuzan. Santua bezala, bere Amandrea-

drearen aldean, ta bere Aioaren mendean acizan. Guero. Aio onec contatcen zuen, Luisec, bere bician, arc aguindu cion gauzaric utzi etzuela, edo aren esan gucia beti eguin oizuela.

16 Orduco Luisec Ama Virgiñaren Oficioa, ta beste devocio asco belaunico errezatu oi cituen. Emezortci illa betean quartana gaisto batzuec igaro cituen, baña Jaunaren erregaloac bezala, paciencia chit andiarequin: eta orregatic bere egercicio santuac, beti eguiten cituen. Nola Amandreac ascotan esan oi zuen, nai zuqueala chit, Seme bat guztia Jaincoarena Religioan izatea: Luisec beñ ba-

tean esan cion: Amandre: ori as-cotan esan oidu. Bada ni izango naiz Seme ori. Gaztechoa zan orduan, baña ori guero icusì izanzan. Dembora artan Marques Don Ferrante guerretatic bere echera biurtuzan, eta Luis ta Rodulfo bere Semeac Florenciaco Cortera eraman cituen.

## S. LUISEN BICITZA FLORENciaco Cortean.

17 Duque Andiac bere Palacioan estimacio guciaz irurac artu cituen, ta Marquesa joan da ere, Seme biac berequin iduqui nai cituen. Baña Aitac orien acie-

aciera onagatic , ta eſtudioraco, Duquearen guſtoco eche batean, Aingueru calean, beren Aio, Maiordomo, ta Maiſu Sacerdote egemplar batequin iſiñi cituen. Bederatci urte Luiſec cituen, da urte bi luce an egon zanetan, Latiñez icaſi, ta bere buru egoquiaz chit aurreratuzan. Jai eguneran Palaciora joatenzan, eta Aioari guſto emateagatic, noiceanbeñ joco oneſtoren batean dibertitcenzan. Baña Duqueſac oicion guero, berac, eta bere Aizpa Doña Maria, Franciaco Erreguiña guero izanzanac gazteac cirala, Jardin, edo Palacioan dibertitceraLuis convidatcen baldin bazuten, onec

esan oi ciela, bere devocioetan egon naiago zuela.

18 Emen Ama Virgiñaren devocioan chit aurreratuzan Anunciada esatendan Imagina guciz Florencian veneratuaren aurrean, eta are gueiago, gure Padre batec Ama Virgiñaren Devocioco aterazuen Libru batequin. Au iracurri, ta amorez irazaquizan; eta beñ Libruarequin cegoela, Luisen biotza argui bero bici batec sartu zuen. Ama Virgiñaren Seme izateco deseo santu onequin, aren Aldare aurrean, Virgiña guztien Erreguiña imitatzeco, ta bere Virginidadea osoro beti gordetzeco Jaincoari voto eguin cion: eta

Ama ſantiſsimaren eſcuetatic Luis, en Ofrenda preciatu, au, ta onen Caſtidadearen lore ederra chit bere guſtora artu cion, da berararen graciaz Santuac pribilegio miragarriaz gorde zuen: eta gorputz gabea baliz bezala, ez onen, ta animaren tentacioric bere bician izan etzuen.

19 Baña orregatic ere Luiſen modeſtia alacoa izanzan, non andreri arpeguira beñere beguiratu etzion: ta bere guelan cegoela, baldin Amac mandaturen bat Damaquin bialtzen bazion, laſterca, Luis campora ertetenzan, ta beguiac lurrean josì, mandatua aditu, ta guelan ichitcenzan. Chiquiago

zala

zala eguin zuena gueiago da : prendetaco jocoan beñ cebiltzala, penitencia Luisi eman cisten, an cebillen Dama, edo aur baten guereiceari apa, edo musu ematea. Baña Luis arritu, ta icara, ta lotsa andi bat artu, ta igues joanzan, eta seculan gueiago alaco jocotara, ta ez bestetara biurtu etzan, eta argatic bere garbitasun ederra osoric beti gorde zuen. Florenciaco Aita Erretorearequin bere Confesio generala eguin zuen : ta bere consuelo andiaz Jaunari bere burua aguindu, ta inclinacio ta pasio guciai guerra bicia eguiten asizan, ta logratu zuen.

20 Amabigarren urtera cijoan

Luis eta Aitac Mantuara eraman zuen, ta gaitz andi batec artu zuen, ta dieta andiarequin curatu zan: arraultza bat jatea gauza andia ceritzan, ta bere Echera biurtu, ta orrela devocioz proseguitu zuen. Jaincoac bere espirituaz gobernatu, ta bere contemplacio altu batean sartu zuen. Gure Aita Canisio Maisu andiaren Oracioco Libru batean erreglac icasi cituen: eta Jesus onaren Pasioco Pauso, ta Misterioetan suavidade andiaz negarrez uztutcenzan, ta are gueiago Mezan consagracioa ezquero: eta doai onec beti iraundu cion. Bere burua, gogo ta naiac espirituco indarraz beti ucatcen cituen

tuen

tuen : munduco gauzac ecerez bezala oñpean ceuzcan, eta guztiro Jaunari emana bere oracio, ta penitencia arrigarrian bicizan.

21 Onetan S. Carlos Borromeo Visitadore Apostolicoa Luisen errira etorrizan : eta Luisec eguin ciozcan visitetan Santua onen anima preciosoan Jaincoac eracutsì ciozcan doai andiaz guciz admiratua, ta consolatua gueldituzan. San Carlosec chit asco animatu zuen, ta Ainguéru bat bezala presstaturic bere escutic lenengo Comunioa Luisi emancion, ta conseju ere bai, aurrera sarri comulgatzeco : ala eguin zuen, ta egunoro Sacramentu divinoaren amorioan

gueiago irazaqui izanzan. Caſal ceritzan erri batera Aitac deitu zuen, eta Luis ibai andi baten erdian igarotzen zala, cochea puſca bi eguinzan, ta erdia zaldiac eraman, da Luis, ta bere Aioa beſte puſcan urac eraman cituen. Baña nola Jaincoac añ berea zuen Luis, milagroz bezala zur andi batec gueldítu, ta libratuzan.

22 Beſte beñ oian gaſſo cegoela, Devozio bat eguiteco arguia artu zuen, ta ori acabatu orduco, bere doloreaquin loac artu zuen, eta arguitic oia ſu andi batec. Ainguerúac bere Luis eſnatu, ta jaiqui zanéco bombonada izugarri batequin oia errezan: eta Santua,

Jau-

Jaunaren faborea alabatzen guel dituzan. Onela bere egercicioetar bici izanzan urte oietan. Amairu urtecoa zala, ta araño ecer eguin ezpalu bezala, bicimodu berria artu zuen. Guztia zan erretiroa, guztia ceruco contemplacio, ta guztia arrigarrizco penitencia. Beti chit guchi jan oizuen, baña barau gogorrac, aſtean iru, ta oſtiraletan ur ta ogui, ta au ere guchi: diſciplinac egunoro, ta guero iru bider egunean, guztiac odolezcoac. Lo guchi, ta gabac ere oracioan: eta erri aietan izotz arrigarriac eguiten bacituen ere, ...iqui, ta alcandora utſean ...do argalez, lurrean

auz-

auzpez Oracioan egotenzan. Jaincoac daqui bere gorputz virginal garbia nola tormentatzen zuen.

23 Dembora onetan Doña Maria Emperatrizari laguntzen Madrida Luis bere Gurasoquin etorrizan: eta Erreguec Luis, ta Rodulfo, Principe Don Diegoren Paje, edo Menino eguin cituen. Onec beñ balcocean Luisequin cegoela, aize gogor bat ceren asizan, enfadatu, ta esan cion: Aizea, nic aguintzen dizut, gueldi zaiteala. Orduan Luisec juicio, ta gracia onarequin: Jauna, esan cion, Berorrec guizonai aguintzeco escua badu; baña el-
ez: oriec Jaincoari

te, ta besteac bezala Berori aren Legueen obediencian dago. Luis Cortean, da Palacioan, Religioan, edo Eremuan bezala bicizan, betico bere penitencian, da Oracioan: onetan lau, ta bost ordu egotenzan, ordu bat bederic batere diberti gabe, bete artean. Egunoro Emperatriza icustera joatenzan, baña seculan arpeguira beguiratu etzion. Bere orduetan Principearequin cumplitu, ta Logica estudiatu zuen: eta Escritura sagradua gogo ta devocio andiaz iracurten zuen.

§. NO-

## 5. NOLA JESUSEN COMPAÑIARA Ama Virgiñac Luis deituzuen, eta Santuaren trabajuac.

24. BEre egercicio santuen artean, mundua utzi, ta Jaincoa obeto serbitzeco deseo andietan Luis sartuzan: eta ceruco arguia, ta Jaunaren vorondatea seguru logratzeco. Ama Virgiñagana biurtuzan. Bere Principe Don Diego orduco Jaincoac eraman zuen, eta Palacioco arazoa quendu cion. Asuncioco fiesta andia cetorren, ta egun orretaraco, penitencia, ta oracio ascorequin prestatu zan Ama santisimari aciertoa

toa eſcatzeco. Egun orretan confeſſatu, ta comulgatu, ta graciac ematen cegoela, bere biotz guztiaz, ta Ama Virgiña Bitarteco zuela, Jaunari bere vorondatea eguiteco bidea, ta gracia eſcatu cion: eta Ama maiteac chit claro otſeguin, ta eſancion, Jeſus bere ſemearen, Compañian ſartzedilla, ta len baño len; eta bere Conſeſoreari contu emanciozala. Ceruco mandatua pocic artu, ta bereala egun artan guztia Confeſoreari eſancion, ta bere Amandreari guztia contatu cion: Confeſoreac eranzun cion, deſeoac Jaincoarenac cirala, baña Aitaren licencia gabe, ecin izango zala

Aman·

25 Amandreac devocio guztiaz ceruco mandatua aditu zuen, eta biotz guztitic, Ana Santac bere Samuel maitea bezala, bere Luisen ofrenda Jaunari, bera serbitzeco eguin cion: eta Amac berac Luisen Vocacioa Aitari contatu cion. Onec naigabezco aserreric andiena artu zuen, ta penaren pasioz norc daqui cer esan, ta cer eguin zuen. Bere Luis preciatua Jaincoaren doaiez, ta prenda ederrez apañdua icusi, ta lurreco amorioaz bere Echearen onraraco munduan nai zuen. Jaincoac bai, ta bestec eztáqui, Luisec alde onetatic eraman zuena. Eliza santac, ta S. Luisen Bicitzac diote, iru urteco

guer-

guerra bicia tormentu, ta martirio modu gogorrac pasatu cituen: itz guchian, ez eta ascoan ere, ecin esan diteque, cer naigabeac, cer penac, cer aldarteač, cer goraberac, cer jornadac, edo araonaco ibillerac, cer guizon andi ascoren egsaminac, pruebac, cer tentacio, ta persecucioac, cer peleac, cer lance, ta tranze latzac, ta cer gurutze tristeac eraman cituen.

26 Aita Marquesac beti atzerapenac ematen ciozcan: Amandreac berriz bere Luis seme Santua guciz estimatua bazuenere, Jaincoari aguindua bezala, Consejuu oneco Ama Virgiñaren esana

egui-

eguiteco aurreratzen zuen. Onela S. Luisec bere santidade, paciencia, negarrezco Oracio, ta odolezco diciplinaquin gueroenean Aitaren Biotza bigundu zuen. Bere Jesus maitea chit estu artuzuen, ta negarrez Oracioan urtutzenzan, ta odolezco azotequin bere gorputz inocentea deseguiten zuen. Echecoac, baita campoco Jaun batec, ere cirricaitu batetic, beren biotzetaco penaz beteric au gucia icusi, ta Aitari contatu cioten: au gotaren miñaz ecin ibillizan, ta silla batean cirricatura eraman zuten, ta Luis bere Seme santua Santo Cristo baten aurrean bere burua azotez puscatzen icusi

zuen. Luisi deitu, ta guelan sartu ciran, ta lurra odol inocentez beteric arritu, ta icusi zuten.

27 Aitari bictza erdiratu citzaion, ta deitu, ta pena andiaz bazan ere, bere bendicioa, ta Compañian sartzeco licencia eman cion. Luisec bere animaco gozoric andienaz Emperadorearen Baiezcoarequin, bere Principadua, ta Estaduac Rodulfo bere Anaiari, largaciozcan. Marquesac berac, gure Aita Claudio Generalari gucia escribitu cion, eta onec Luis Erromara deitu zuen. Aitaren, da Amaren bendicioa artu, ta bere Basalloai consejn santuac eman, ta Erromara igarozan. Aita Generalaren

laren oñetara lasterca joanzan. Er. romaco Estacio santuac ibilli, Car. denal bere Aideac icusi, ta Sisto V. Aita Santuaren oñetara joan. zan. Onec Luis Principe santu amorio guciz andiarequin artu zuen: eta aren ceruco Deia, t deseo santuac asco alabaturic, Ben dicio Apostolicoa eman cion: et Luis Ainguerua Compañian sartz co prestatuzan.

28 Santa Catalina egunean Aita Generala, S. Andresco Novicia- dura joanzan, ta Patriarca Gon- zaga, guero Cardenal izan zanac Meza eman, ta Luis comulgatu zuen, eta Aita Claudioc bere escuz janci, eta Compañian artu

zuen

uen. Gloria bician Luis ſartuzan,
a cerucoa bezala egun ori beti
elebratu zuen. Noviciaduan ſan-
uago izatea guchi coſta citzaion:
ere lecuan bezala, Egercicio ſan-
uen centro artan arquitcenzan
Compañiaco Erregla ſantuetara,
Maiſu onac aſco, laguntzen ciola,
ereala eguinzan, ta Jaincoaren
vorondatea gucian eguiteco, Obe-
liencia bere neurri ſegurutzat artu
uen. Lenengo utci zuen erropa
uztia odolez betea cegoen: eta
Padre batec eſancion: emen obe-
lienciac oracio, ta penitenciac
aburtuco cituela. Luiſec, aitortu
ion: orañ eguiten ditudan pe-
catuac nere Echeco, edo lengo-
en

en aldean ecer eztira. Baña esan zuen : Obediencia ceruco Ontzi seguru bat da : ta ontzian aimbeste dabill gueldiric dagoena, nola bear asco eguiten duena. Eta orra nere Cristaùa , zure vorondatea ucatu, ta Jaincoarena eguitea cer dan.

29 Penitencia andiac, oitu nola, escatzen asizan; baña Maisuac largatzen etzion. Ur ta ogui barautzeco licencia beñ escatu, ta emancion. Santuac chit guchi janzuen : ta mortificatzeco Maisuac esan cion : bigarren Maiera joan, ta besteac bezala jan zezala. Jaten jarrizan, ta batec esan cion : ori ere contu ona degu, barautu bre ... artu

zuen

arrean , Mai bietan jatea. Santuac farraz eranzun cion : Ni astocho baten guisa , baña beti Jaunarequin : aren vorondatea au da. Egun asco zan Novicio zala , ta A. Erretorearen asientoa Errefitorian ceñ zan etziequien. Masti batera Novicioac joan oi ciran : beñ batean beste batera joan ciran. Lagun batec esan cion : ea Eche au , edo besteetaco obea ceritzan? Santuchoac eranzun cion. Nic uste nuen , lengoa bera zala. Beste beñ galdetu cioten , cembat senide cituen : eta Luis munducoaz azturic cegoena bezala , acordatzen etzan , eta eranzuteco senideac contatzen asizan. Munduco berri-

rio

rio etziequien, ta aideric ezpazuen bezala, Jesusen Biotzean beti bicizan.

30 Dembora onetan Luisen Aita Jaincoac deitu zuen, da Jaunari graciac emanciozcan, eta Amandreari consolatzeco ori bera escribitu cion, ceren Aita gurea, ceruetan zaudena obeto esan zezaquean: eta Ama Semeac, eta guztiac zuten, Jauna cergatic alabatu. Marques ori lengo onrac, jocoac, jolasac, eta lurreco gauzac utziric, Luis Compañian sartu zanetic, chit trucatu, ta Jaincoagana biurtuzan guztia, ta seme santuaren egemplo, ta oracioaquin, Confesio general andi bat eguin,

ta

ta Luis en Santo Criſtoa arturic, ario guztia zor ciolaco, biotzeco damu, devoziozco negar, ta animaco conſuelo andiaz illzan.

31 San Luis umildade, ta munduco deſprecioan, ta virtute gucietan chit aurretatuzan, ta Noviciadua igaro, ta Votoaquin zan gucia, Jaunari conſagratuzan. Eſtudio etan chit contuz ceruco doaiaquin, jarrizan, ta Filoſofia guztico funcio andi bat chit ederqui, ta agudeza miragarriaz iduqui zuen. Actu naguſi onetan beſte aſcoren artean bi Cardenal, Gonzaga, ta Robere, Luiſen Oſabac preſente egonciran. Luis Ainguerua ala icuſi, ta penſa diteque bien

D aſe-

atſeguiña nolacoa izangozan. Teologian ſartu, ta Santo Tomas, ta Sant Buenaventurac bezala, oracioaz eſtudioa aſitzen zuen, ta bere Jeſus maitean gucia icaſten zuen. Munduco aldarteac dutena, onenean A. Generalac bere Errira, ta Mantuara, eguiteco andi batzuetara bialdu bear izan zuen, eta lecu gucietan miragarrizco Santidadearen egemploac eman cituen.

32 Caſtellonen fieſta chit andiaquin, beren Jauna bezala Luisec nai ezpazuen ere, Baſalloac artu zuten. Emperadorearen Izeba Doña Leonor Santac bere cariño guſtiaz laztanga Luis artu zuen; baña bere Amandrea orretara atrevitu

tu etzan, eta Santua bezala bere biotzeco ſemea belaunico artu zuen; eta Luiſec erreverencia, ta amorio guztia, Amari bezala eracutſi cion. Mantuaco Cortea, ta Erri aietaco Jaunac ceruco echizo zoragarri batec bezala ſeculaco encantatu cituen bere ſandidade, ta prenda eſcogituaquin, ta ceren icuſi zuten, Duque Andia Luiſen Aingueru modu ta gracia egoquiac guztiro irabaci zuen, ta naizuen gucia logratu, ta bere Eſtaduac paquean utzi cituen. Orobat Rodulfo bere Anaiaren Ezcontzaco arazoetan logratu zuen, ta Jaincoarenzat zuzenduric Anaia, ta Aideac iſiñi cituen.

33 Bere Amandreac eſan, ta Jaiviſpera batean provechu andico Sermoi bat Predicatu zuen: eta biaramonean echecoac, eta zazpieun anima confeſatu, ta comulgatu ciran. Santua bere eſtudioetara biurtuzan: eta ill baño urte betez lenago Jaincoac chit beregana jaſo zuen. Bere contemplacio altuan cegoela argui andi batean adierazo cion, ta icuſi zuen laſter ill bear zuela. Aviſo onequin Teologiaco laugarren urtean ſartu zan, ta ceruronz ſuac, eta garrac aren biotza artu zuten. Lurrean cegoela ceruan bicizan: eta cembat centro onen alderago ambat amorezco gar aldi biciagoac eman cituen. Beti arroba-

baturic, beti Jesusen Biotzean sarturic bicizan. Comunio batetic bestera egunoro obeto prestatzenzan. Ainguerú bere Adisquideen, ta Ama Virgiñaren devocioan urtutzenzan, eta gozoro ceruco gloriaren, eta bere eriotzaren gañean itz eguiten zuen.

## §. S. LUISEN ERIOTZA PREciosoa.

34 URte onetan Italian, ta are gueyago Erroman gose andia, ta eriotza asco izan ciran. A Generala, ta guztiac Ospitaletara pobreai laguntzera cijoazen. S. Luis bere caridadeaz gasso

apes-

apeſtatu , edo izurrizcoac ſervitzera bereala ofrecituzan , ta beſteac onen egemplora. Principe andi Luiſen adiſquide bat Aita Santuagana etorrizan : eta licencia eſcatu , ta erropa zar bat , eta bere alforja artu , ta Jaun ori icuſtera joanzan: onec Luiſen egemplotic animaren probechu aſco atera zuen , eta ſantuari bere pobreenzat limoſna andi bat eman cion. Laſtima gogorra zan , aimbeſte pobre erio eguiñic icuſtea ; eta anima ortzetan zutela, oñen gañean ecin egon , ta illac erorten ciran. Ango quiratſac naſcatu , ta ill zezaquean ; baña Luis caridade gozoz beteric guztiac garbitzen , oiac , eta bearzan gucia

egui-

eguiten cebillen: eta cembat, eta atſago, Luiſen poza gueiago. Onela ceruraco deſeoaquin cebillela, Marzoaren irugarrenean, gaſſo laſtimagarri bat S. Luiſec beſſoetan artu zuen, ta bereala gaitza erantſi citzaion.

35 Erromaco Juezac au icuſi ta eſan zuten, S. Luis caridadearen Martiri bere burua eguin, da illtzala. Santuac peligroa icuſi, ta ceruraco gogo andiac artu cituen, eta gueiegui ote ciran eſcrupuloa eguin zuen, eta galdetu, ta bere Confeſore Aita Belarminoc eſan cion: Jaincoarequin bat eguinic egoteco deſeoac ſantuac cirala, aren eſcuetan gucia largatzen zala.

la. Zazpigarren egunean gaitzac chit azpiratu zuen, ta Sacramentuac devocio, eta edificacio guciz andiaz artu cituen, Oracio guciai eranzunaz, ta Colegioco guztien pena gogorraz.

36 Egun onetan oguei ta iru cumplitzen cituen, eta etsizan cerura cijoala. Baña merito andiagoraco, ta egemplo eder asco emateco epe luceagoa eman cion Jaunac, eta gueldica desseguinzan. Izurri andiagoaren bildurrac ciran Erroman: ori aditu, ta Luisec Aita Generala icustera etorri citzaionean licencia escatu, ta baldin Jaunac osasuna ematen bacion, gassoai laguntceco Voto andi bat eguin zuen.

en. Cardenal Jaun bere aide biac aſcotan Luis icuſtera cetozen, onen ceruco platicac aditzera, ta beren animen probechu andiraco. Amandreari ceruraco deſpedidan carta bi, ta aiec alacoac eguin ciozcan. Ceruco aviſoac edo revelacioac iduqui cituen. Egun dichazcoa alderatu zanean nola preſtatuzan eſatea erraz ezta. Cer umildade, paciencia, devocio, ta amorezco exemplo ederrac eman cituen? Azquenic diciplina bat artzeco, ta lurrean iltzeco licencia eſcatu zuen.

37 Jeſus crucificatua bere beſoetan, ta biotzean ceucan beti. Aita Belarmino bere Confeſoreari

gal-

galdetu cion : Purgatoriora gabe cerura zuzen iñor igotzenzan ? Bai, eranzuncion : eta orietatic bat zu izango cerala , deritzat. Bereala Luis arrobatu , ta gozaldi andi batec emancion : eta ceruco argui bici batean ango gloria icusi zuen, eta chit luzaro : bere eriotzaco egun , da ordua jaquin zuen , ta esan zuen bezala , icusizan. Ascoc esaten cion , cerura igotzen zanean Jaunari encomendatzeco : eta Santuchoac ia an cegoenac bezala chit pocic , baietz aguintzen cien. Errevelacio ori ezquero , zortzi egun aietan glorian cegoela cirudien. Corpuseco octaban ascotan esan zuen : Gau onetan ill bear-

det.

det. Viatico Santua eſcatu, ta, Aita Erretorearen eſcutic bere Jeſus maitea artu zuen, Aita Santuac contuz galdetu zuen Luis nola cegoen, eta propio motu berez Bendicio Apoſtolico bialdu cion.

38 Colegioco guztietatic chit aleguere, ta laztanga deſpedituzan: eta gauerdian, Jeſuſen Biotzeco eguna ſartzen zala, ta Jeſus gozoro eſaten zuela, Aingueru bat bezala paquean, ta ill ezpaliz bezala, cerura joanzan, oguei ta iru urte, iru illabete, ta amaica egunequin, bagillaren oguei ta bat-garrenean. Ceruraco eriotza precioſo au icuſi zuten Padreac beren biotzetaco devocio gozo batez beteric gue-

gueratu ciran , eta erregalo onec asco iraun cien. Santuaren edocen gauza Reliquiatzat artenzan eta, Estudianteac orretan asco aurreratu ciran , eta ateac ichierazo ciran. Aita Generalac dispensatu , ta Luisen santidadeagatic , Caja batean , Sto. Cristoaren Capillan Gorputz santua ifiñizan. Erroman , ta lecu ascotan Santuaren fama banatuzan , ta devocio andiaz aren sepulcrora egunoro ta gende gueiago cetorren. Ango Guizonic andienac , Obispoac , ta Cardenalac, batezere Belarminoc , eta Baronioc Luis Santutzat predicatzen zuten.

39 Aita Santuac berac esan zuen , dichosoa zala Luis , ceren

glo-

glorian contentuz beteric cegoen. Ala Santa Maria Madalena Pacisec rapto andi batean Luis ceruan icusi ta esan zuen: Luis Ignacioren Semea, Santu andi bat zala, ta esan al baño gloria andiagoa zuela. Luis Martiri escutatua izandu zala, eta bere burua Martiri eguin zuela: Gloria ori gucia Luisec ceucala, ceren Jesusen Biotzean, ta bere barrengo amoriozco egercicioetan bicitza escutatua eguin zuen. Santuaren Bicitzaco Libruac atera ciran, ta beraren devocioan gendeac chit berotu ciran. Milagro Señalatuac eguiten asizan. Baña nondic, edo nola? O Luisen pribilegio paregabea. Munduac bearbada seculan icu-

si

ſi eztuen moduan. Nongo Santu Miraguillec bere Amarequin ceru-tic lurrean Milagroric eguindu? Bada S. Luiſec cerura igo, ta le-nengo eguin zuen Milagroa, bere Amandrearequin eguinzuen: eta oni aſco zor bazion, ondo paga-tu cion.

## §. S. LUIS EN MILAGROAC.

40 MArqueſa Amandrea erio-tzco gaitz andi batec artu zuen, Eleizacoac eguiñic, Medicuac etſi, ta utziric, biotze-co eſtuaz iltzen cegoen; eta orra non S. Luis bere Seme gloriosoa etorri, ta nere Ama chit maitea, eſa-

eſaten ciola, conſolatu, ta bereala ſendatu zuen: eta amairu urteco bicia emancion. Beſte gauzen arteau eſan cion, berac utzi zuen Principadua, ta Echea cembat faborez Jaincoac beteco zuen, ta aurretatuco zan. Gucia Doña Martac bere oſaſunan, da amairu urteetaco bician icuſi zuen. Bere Sabeleco ſeme Luis Aldarcetan; bere ſabeleco Luiſen Reliquia adoratu, ta aren feſtaco Proceſioa, Meza, ta Sermoia enzun cituen. O Ama ſemeen dicha, ta gloria eſan albaño andiagoa!

41 Bere Coñata Doña Elena bicitza ſanta baten ondoren illzeco çegoela, S. Luis cerutic etorri, ta

eſan-

esancion , andic iru egunera , ta cer orduz ceruraco presta cedilla, ta ala iltzan. Bere Anaia Don Francisco fabore andiz bete zuen : eta Luis ezagutu zuen Aita Santuac oni esan cion : Badaquit , Principea, bicitzaren peligro andietan arquitu cerala ta gucietatic Jaincoac marabillaz atera zaituela. Baña cer milagro , Luis zure Anaia Santua ceruan zure fabore , ta Bitarteco badezu. O zure dichosoa Principea , ta guciz dichosoa ! Onela Aita Santuac devocioz , ta negarrez beste gauza asco esan ciozcan. Guero S. Luisen Bizitzac dionez *egunoro* Milagro andiac eguin ditu bere Estaduetan , Austrian , Polonian ,

ta

ta mundu gucian : eta gorputcetaco osasunan eguin dituenac andiac, eta asco badira, Milagro espiritualac, edo animen fabore eguin dituenac andiagoac dira. Orien artean Marabilla bi luzaro iraun dutenac laburcho badere contatu naiditut, ceren Milagrozco aralde eder bat izandu diran.

42 Bata Ubolfango ceritzan Babieraco batequin. Onec Sacerdote eguin, ta Jaincoa serbitzeco deseoz, estudioac asi cituen, ta chit gogotic. Baña burutic beraco andi batec beguietara eman cion, ta itsuturic gueldituzan : erremedio asco, ta luzaro eguin, ta gucia alferric izanzan. Dembora onetan itsuaren lagun batec S.

Luiſen lamparaco olio guchi bat e-
carrizuen,ta onen Milagro andiac bi-
enMaiſuari contatzen aſizan:itſuac ci-
on, A.S.Ignacio,S.Xavier, S. Luis, ta
S.Eſtanislao aguertu citzaiozcala, ta
S. Luiſen devocio andia artu zuen.
Confeſatu, ta comulgatu, ta A.
Jorge Eſpaigero bien Maiſuac olio-
az beguietan emateco preſtatuzan.
Olio milagroſoa eman, ta beguie-
tan, ta animan ſuavidade andi bat
ſentitu zuen. Bigarren egunean
olioaz eman, ta zorne, edo umo-
re ori izugarrizco balſa andi bat
beguietatic bota zuen. Irugarre-
nean eguin, ta Ubolfango oñaze
gogor batzuec bere cordetic ate-
ratzen zutela eman cioten. Bere
eſtuan

estuan S. Luisi deadarrez, ta biotzetic deitzen ciola, sosegatuzan, ta bertan bere¡lengo vista oso garbiarequin gueldítu, ta iracurten asizan.

43 Milagro au beren beguiaz icusi zuten testigu guciaquin bereala S. Luisen Aldarera joanzan, bere milagrozco vista Santuari aguindu, ta graciac emanciozcan. Monja bat itsuturic cegoela bacierquien, ta olio pisca bat bialdu, ta bere milagroa gastigatu cion. Au Monjac beguietara orduco bere vista osoarequin, S. Luis alabatzen guelditazan. Baña Santua gueldítu etzan bere Milagroetan. Ubolfango Canonigo eguin zuten: vista osoa ceucan baña estudiatze-

co buru argala. S. Luisi fede osoarequin estudiatzeco burua, ta gracia escatu cion, ta bereala emancion, ta ondo, ta asco icasi zuen, Santuaren saborez. Bigarren Milagro au, ta beste gauza andiac S. Luisen Bicitzac dacartzi. Bere S.Luis adoratzera Erromara bacarric, biotzeco devocio guztiaz joanzan.

44 Ereje galdu batzuec bidean topatu, ta orietatic bat lotsa, ta bildur gabe, Jaunaren ofensan gaizqui esaca asizan: Ubolsangoc aleguiña eguin zuen, baña orduan blasfemoa gaistoago. Orduan bere S. Luisi escatu cion, ereje infame ori isillerazo zezala: Santuari escatzea, ta erejea zalditic erori, ta bor-

do-

doieco iltzea, oñean ſartzea, guztia bat izanzan. Ceruco caſtigu onequin odolez uſtu, ta curatzen bidean gueratuzan, ta bera S. Luiſequin joanzan. Andic laſter laugarren Milagroa.

45 Baſo chit ichi, ta lapurtegui batean cijoan, ta bildur andi batec eman, ta eſtutuzan. Nere S. Luis, eſan cion: baldin libratzen banazu, Echean dedan guztia zurea da, ta Capilla bat, cillarrezco zure Bultoarequin eguingo dizut. Au eſatearequin orra non ſei lapur baſotic irten, da zuena quendu, ta loturic baſoan utzi zuten. Nere S. Luis, non cera, eſan zuen, onela uzten nazu? Orduan San-

tuac : Cer naizu ? Eta lapurrai : Cer da au ? Nor cerate ? Eta ſei lapurrac gucia utzi , ta arrituric joan ciran. Nic lagunduco dizut Bidezco Santuac eſan cion , ta ala eguin zuen. Oſtatuetan chit erregalatzen zuen , ta bidectan ceruco jolaſac , eta Jaincoaren alabanzetan cijoacen. Onela Erroman ſartu , ta S. Luiſen ſepulcrora eraman ; eta , guero artean , eſancion.

46 Ubolſango S. Luiſen amorioz urtu , ta bere biotzetic graciac ematen egonzan , ta angoa eguin , ta S. Luis lagun zuela Echera chit ondo biurtuzan. Bereala Capilla , ta cillarezo Eſtatua eguin ciozean : eta Ingloſtadion beſte Bul-

to eder bat. Oiec eguin, ta Peregrinoa bezala bigarren aldian Erromara joanzan, eta S. Luisi bere faboreacgatic, zuena, ta zana guztia emancion. Sacerdote eguin da Meza esaten cegoela, S. Luis etorri, ta esan cion, bere criaduetatic bat lapurra zala, ta cer eguin zuen: ta erremedia zezala. Baña atrebitu etzan. Bigarrenean S. Luis aserre bezala etorri, ta esan cion bereala, bereala erremediatzeco; bestela Anaia etorri, ta lapurra illco zuela. S. Luisec esan cion bezala, diru andia ostuzuen criaduac, ta bereala bialdu zuen. Anaiac diruaren falta icusi, ta lapurra ill naizuen. Baña S. Luisen fabore ta Milagroa aditu ta sosegatuzan.

Bes-

47 Beſte mutil bat licencia-
requin , ta bere lagunaquin feſta
batera joan , ta ardoac edo dea-
bruac artu ta biurtuzan : ezpata ar-
tu , ta Echecoac ill bear cituela
cebillen. Ea , zaude gueldi eſan cion
Ubolſangoc , beſtela nere S. Luis
zure contra da. Eſan da eguin. Ber-
tan gaitz andi batec artu , ta ilcer-
zan. Baña S. Luiſi eſcatu , ta beſte
Milagroa eguin zuen. Ea , ondo
zaude : jaiquizate : zoaz S. Luiſen
Aldarera , barcacioa eſca zaiozu :
confeſezazu zure pecatua , ta co-
mulgazaite an , ta S. Luiſec oſaſuna
emango dizu : ta ala eguin , da
eman cion.

48 Eleizaren etſai deabruzco
Guſ-

Guſtabo bere tropaquin etorri, ta Landiſuto Ubolfangoren errian calte aſco eguin, ta bera preſo eraman zuen: chit afligituzan, ta Meza eſaten cegoela S. Luiſec eſancion: Ni zurequin izangonaz. Gaitz aſco icuſi bear dezu; baña zoaz. Mandatu onequin joanzan Sacerdote devotoa. Baña erejeac Auguſtan eguin cioten tratu gaiſtoarequin, trabaju andi luce batec artu, ta iltzeco egonzan. Berroguei ta amabi ſangria ito etzedin, eguin, da etſi ta Medicuac utzi zuten. Baña ceruco bere Medicu S. Luiſi deitu, ta bertan ſendatu zuen, jaiqui, ta Meza eſanzuen; baña devocio chit andiarequin, ta irugarrenean Erroma-

ra joateco promesarequin: ala cumplitu zuen.

49 Medicuac icustera joan, ta arriturric ceuden: S. Luisen Milagroa icusi, ta milagroz baicen ecin sendatuco zala, gaitzaren Relacio lucea, Santuaren onraraco batac emancion: bestea Judua zan, ta eman nai etzuen; baña Ubolfangoc esan cion: Emazu testimonioa; bestela beguira nere S. Luisen castigua: nere gaitzac, edo andiagoac zure contra or dira. Au aditu, ta sinistu, ta S. Luisen Milagroa probatzeco sei Cartapacio escribitu cituen. Obispoaren aurrean guciac pasatu, ta bere oriequin Erromara irugarren aldian joanzan. An bere biotzeco

co S. Luis adoratu, ta Testigu gucien esanac ofrendatu ciozcan. Bere Echera ondo biurtu, ta Pulpituan, ta Platica gucietan S. Luis maiteataren Marabillac predicatzen bicituzan: ta onen devocioa mundu guciari emateco Libru bat atera zuen, Aingueru S. Luis nolaco Goarda, ta Patroi onguillea dan eracusten zuela. Eta orra Milagroa franco, edo Canonigo onen bicitzan betico Milagro bat.

50 S. Luisen beste onen guisaco, ta betico Milagroa da, Irin famatuaren gueitura, Monja pobre batzuequin chit luzaro eguin zuena: sama andico Irin milagrosoa, ta chit lecu ascotara eraman, ta

ma-

marabillaguciz asco ta andiac eguin dituena, S. Luisen Bicitzan luzaro contatcenda. Napolesco Dendari pobre batequin eguin zuen Milagroarequin nic acabatu naidet. Onec berroguei ducat zor cituen, ta chit pobre, ta estu cegoen; S. Luis eguna zan, ta Eleizaco Atean aren Imagina icusi, ta non zan etciequela esan cion: Ai bada, nere Santucho ederra! Ta zor onetatic ni libratuaz, cer galduco cenduque zuc? Beste gabe aurrera joanzan. Biaramonean pobreen lecura cijoala bic esan cioten: Echera zoaz: zure zorra Jesuita gazte batec pagatudu. Ala zan, ta arriturric galdetu, ta S. Luis nor zan, ta cer milagro

an-

andiac eguiten cituen, jaquin zuen. Pobre onequin andiago are eguin zuen. Bere nequeen artean deabruac tentatu, ta galtcera ceramala, S. Luis aguertu, ta esancion: ori deabrua da, ta ni zu libratcera etorrinaz. Egunoro bost Pater noster, da Ave Maria erreza zaizquidatzu: eta devocio onequin pobrechoa S. Luisen alabantzac contatcen bici izanduzan.

51 Iru Princesa, Cintia, Olimpia, ta Gridonia, Rodultoren alabac, ta S. Luisen illobac izandu ciran, Santac bezala bici, ta ill ciranac. Oiec Osaba santuari jarraitceagatic; lurreco Ezcontzac, eta ondasunac utci, ta beren Virginidadea-

dearen lore ederra Jesus beren Esposoari consagratucioten. Gure Colegioen guisa Jesusen Colegio bat eguin zuten, eta S. Luis beren Osabaren amparoan beste Señora ascorequin Santidade andian bicitza acabatu zuten. Ogueita amar urte ta gueiago igaro, ta iruren Gorputzac osoric arquitu ciran. O S. Luisen illoba, ta imitatzalle dichosoac! O Luis gozatzu miragarria! O Luis maitetsu, ta maitagarria! Arren alcanza zaguzu, zure penitencian, zure animaco martirioan, zure biotceco igoaldadean, Jesusen biotceco amorioan, Ama Virgiñaren devocioan, ta beste virtuteetan zuri jarraitceco gracia: Bicitza santu

tu bat zure ondoren lurrean eguiteco, ta zurequin, gure Jauna ceruan beti alabatceco. Amen.

## SAN ESTANISLAO COSCAren Bicitza.

1 SAn Estanislao San Jacinto gloriosoaren Aideetatic, edo odoletic cetorren. Biac Poloniaco Joia precioso onragarriac. Biac beren Ainguerutasunean elcarren antz ederrecoac. Biac Ama Virgiñaren Seme estimatuac. Biac Religio berri banatan, beren, ta orien dicha andiraco sartuac. Jacinto bere Religioan artu zuen Santo Domingo gloriosoac, eta Estanislao S. Francis-

ciſcu Borja andiac. Novicio biac Poloniaco, ta orien Artzalle biac gure Eſpañaco onra paregabeac. Jacinto, ta Eſtanislao antz andicoac: ta ez bacarric lurreco ſuſtrai batean; bai ta ere cerucoan: ez bacarric beren Santidade, ta bicitzan; bai ta ere ceruco ſuſtraican, edo eriotzan. Biac Ainguerucn Erreguiña, bien Ama maiteac cerura deitu cituen, ta aviſo gozo onequin biac ill, edo cerura igo ciran: ara Ama Virgiña igozan egunean: biac bere Coroacioco egunic andiena celebratzera craman, ta bere Semeac bezala onraz, ta gloriaz biac coroatu cituen.

## §. S. ESTANISLAOREN JAiotza, ta aciera.

2 SAntuaren Aita, Joan Cosca, ta Ama Margarita Crioſca, beren Noblecian jaquiñac, eta berdiñac izan ciran. Boſt Seme izandu cituzten, ta gure Eſtanislao, beſte Benjamin bat bezala, atzenecoa. Onezaz Margarita aurdun zanetic, prodigio andiaz bere Sabel gañean JESUS Izen divinoa, colore gorri eder biciaz, eta guiran raïo, edo erreñu arguiaz apañdua, ta joſia icuſi zuen: Jeſus maiteac aren ſabelec frutua bere Compañiaraco marcatu zuen: eta onela Eſtanislao mundura etorri baño ere le-

nago ceruac ſeñalatu zuen. Au jaiozan Guraſoen Gazteluan, urriaren oguei ta zortzi garrenean, eta milla ta boſteun ta berroguei ta amargarren urtean: eta bereala Pranizco Ciudadean, ta S. Adalbertoren Parroquian bateatuzan.

3 Emen ceruco beſte Marabilla bat icuſizan. Bateo ſantuco gracia betico artu zuenean, Aita Pontecoac Aurra beſoetan artu, ta ceruco inſpiracioz, ta devocio guciaz Aldare Naguſira joan, ta bere Eſtanislao Jaincoari biotz guztitic aguindu, ta conſagratu cion. Aingueru onen ofrenda ceñ guſtoz Jaunac artu zuen guero ondo icuſizan: bada Coſaco Eleizaren etſai

go-

gogorrac ſartu ciranean, Parroquia oni ſu eman, da guztia errezan; ezpazan Santuchoa bateatuzan Pontea, ta Aldarea ceñean Jaunari consagratu citzaion: biac prodigio andiaz libratu ta conſervatu ciran.

4 Jaincoaren Seme precioſoa bezala Guraſoac Eſtanislao azi zuten, eta arrazoiaren uſora laſter etorrizan, edo diotenez Jaincoac ori bere eſcuan, ta contura ceucanac bezala, aurreratu cion. Cierto daquiguna da, Eſtanislaoc berac Erroman guero eſan zuena: arrazoiaren arguia bere biotzean ſentitu zuenean, lenengo eguin gauza izandu zala, argui divinoaz Jaincoa bertatic ezagutu, eta bere Ani-

ma , biotz guztitic betico eman, ta Jaunaren vorondateari consagrat-cea. Prodigio au nola izanduzan, ta ofrenda eder ori nola Jaincoac eraguin cion , Santuchoac obeto daqui orañ glorian , orduan lurrean baño. Santuaren inocenciatic , ta beraren Bicitzan icusten degunetic daquiguna da Jaunac Estanislaoren anima escogitu zuela , ta bere Jaquintasunaren Eche edo Templo bici eguiteco , Doai divinoaz apañdu zuela. Aur cho gozo oni zazpi Pillare bezala , chiquitatic zazpi Pribilegio ardi Jaincoac eman ciozcan.

5 Lenengoa : Anima guciz eder garbi bat Jaunaren graciazco inocencia beti gorde zuena.

Bi-

Bigarrena : Berariazco argui divino bici bero bat , Jaincoa ezagutceco , amatu , ta ſerbitceco , ta aren vorondatea beti eguiteco.

Irugarrena : ceruco Atearen , da Ondaſunen guiltza , ceña dan Oracioaren Doaia , fabore guztiac orrequin alcanzatzeco.

Laugarrena : Santiſimo Sacramentuan Jeſus amoroſoa ezagutzeco , ta biotz guztitic adoratzeco , ta amatzeco egarri bici bat.

Boſtgarrena : Ama Virgiñaren Seme , laztan gozoaren marca , ta biotzeco devocio chit irazaqui erregalatu bat.

Seigarrena : bere traza eder egoqui , ta modeſtia virginalaz batean

Ain-

Ainguerūaren Castidadea, onen da beste virtuteen ceruco usai chit suabea cecarrena. Gure aurrari beguiratcea, ta devociozco pensamentu garbiac edoceñi ematea, guztia bat zan.

Zazpigarrena: Virtuteraco bezala, jaquinderaco, berariazco gaia Espiritu Santuac eguin zuen: ala beti edo gueienean Oracioan bacegoen ere, Ainguerüen jaquinde cerutic emanicacoa bere estudioetan iduqui zuen: laster chit, eta arguiro gauzac icasteco, ta bear zuena ondo jaquiteco gracia Jaincoac emancion.

6 Jaunaren fabore, ta doai señalatu oiec aguertu, ta icusi ciran

Es-

Eſtanislaoren Bicieran : ala beguizco teſtiguac bezala , Santuchoa ſerbitu zuten criaduac , eta Aioac guero aſeguratu zuten. Bere natural on egoquiagatic , bere Guraſoaquico , ta beſte guztiaquico chitez eſtimagarria izanduzan: ta eſtimacio au veneraciora laſter igarozan. Edertaſuna , Autoreac diotenez , guiza ſemearen baño gueiago zan , edo Aingueruarena cirudien ; ta ori modeſtia pare gabearequin. Jaun andi aſco Gaztelura etorri oizan : baldin orietatic iñorc Maian edo beſtela Jaincoaren ofenſaco jolas , edo izquetaren bat eſaten bazuen , bereala Santuaren Aita jolas ori ebaqutzera erter oizan. Ea , Jaunac , ez orrelaco gau-

zaric esan da ez onara ecarri. Emen dago gure Estanislao, ta onen adisquide izan naiduenac, ez orrelacoric onen aurrean esan. Bestela biotzeco miñez, corde gabe, edo arrobaturic guelditúco da.

7 Ala zan, ta orren jaquiña echean, Santuchoac Jaunaren ofensaco gauzac eriotza baño ere gueiago sentitzen cituela; eta orrelaco jolas itsusietan illa bezala gueratcen zala. O Ainguerúzco inocencia! O gazteenzat cer egemploa! Escola ondo icasi, ta Gramatican aurreratzenzan. Orduan Austriaco Vienan asizan gure Seminarioaren berrionac, eta fama andia banatuzan, eta Aitac Estanislao bere anaiares-

quin

quin ara ondo acitzera, bialteco animoa artu zuen. Amac bere Estanislao chiquiari cion cariño andiagatic, ori joatea nai etzuquean. Baña nola gurasoen obligacio estuena dan, beren umeac Jaunaren bildur santuan ondo azitzea, Aitaren arrazoiac Amac ondo artu cituen.

8 Adierazo cion ondo, beren umeen contu ona Jaincoari ematceco, cer dicha andia zan, oriec Seminarioan seguru, ta Jaincoac nai duen bezala Guizongai eguitea. Munduco ondasun guciac baño, aciera onac gueiago balio zuela; eta onetan lurreco ondasunac gastatzea, Jaincoaren vorondatea egui-

tea,

tea , ta cerua irabaztea zala , eta orretaco berac ematen cituela. Au gucia Margaritaren piedadeac ezagutu , ta baiezco eman zuen: ta Paulo , ta Estanislao joateco presttatu cituzten. Seminarioco legueac aguintcen zutenez , criadu bana , ta Aio Canonigo bat , ta bear zan gucia eman citzaien , eta Anaia biac joan ciran.

## §. SANTUAREN BICITZA Seminarioan.

9 VIenaco Cortera biaje on bat eguin zuten , ta Seminarioan sartu , ta bereala Estanislaoc bicimodu santu bat asi zuen. Jain-

coaren tratua , ta Estudioco jarduera Santuaren betico egercicioac izan ciran. Jaincoarequin erretiroan, guizonaquin bullan baño , naiago zuen jardun. Gau , ta egun oracioan po cic egongozan ; baña Jaunaren vorondatea eguiteagatic , bera utzitzean , baciequien , obeto bera arquitzen zala. Bere Maisuai guztian obeditzen cien, ta onetan guztien egemploa zan : lagun gucienzat berdiña , ta guztiaquin igoal gozatsua, edo afablea. Santuaren espiritu , edo barrena aguertcen bereala asizan: Eguzquiaren argui guciac baño arguiago ta ederragoac ciran aren virtuteen Egemploac , ta ceñ Jaincoaren faborecitua zan , guciac cecusten.

One-

10 Onetan seguratu ciran gueiago beguiz icusi zuten marabilla batequin. Santua Jaincoarequin luzaro egon, ta libru devoto batean loac artu artean, iracurten egon oizan. Gau batean lo andi batec onela artu zuen, ta arguiac oia irazaqui, ta gucia erre zuen. Baña Santua gordetceco guelaco lagun bat Aingueruac esnatu zuen: au deadarca asi, ta sugarren artetic Estanislao libratuzan. Su ori itzali zanean, lagunac beguiratu, ta librua, ta oieco erropa zan gucia auts eguiñic icusi zuen, ezpazan Estanislaoren gorputzac betetcen zuen lecua: orobat almoadetan gucia erre, ta burua egonzan lecua

oso-

oſoric. Lagun cintſoac Santuari beguiratu cion, cerbait erre otezan; baña illecho bat ere falta etzuela arquitu zuen. Teſtigu onec Proceſoetan juramentuaz ala ſeguratu zuen.

11 Santuari bere virtuteen egemploacgatic chit aſco nai cioten, eta onen oracioaz guztiac arrituric ceuden. Aſcotan Aingueru bat bezala, cordegabe belaunico airean aquitcen zuten, eta elcarri deitu, ta icuſtera joaten ciran: ots eguin, da tiratcen cioten: baña Santua ceruco eſtaſis ean gueldítcenzan: eta berac beñere jaquin etzuen, lagun guztiac Jaunaren fabore, ta erregalo oien beguizco teſtigu cirala.

rala. Chiquiago zala ere orobat izan cituen, ta estasis oien testigua Aioa izanduzan. Onenean, Jaincoac ala nai, ta guztiac Seminariotic irten bear izan zuten, eta Paulo Anaiac Senadore baten Palacioa bicitceco artu zuen: Jaun andi au ereje itsu-bat zan.

## §. SANTUAREN BICITZA SEminarioaz campora.

12 PAlacio onetan, eremuan bezala, aparteco guela batean bere Jaincoarequin Estanislao bicituzan. Oracioa, ta penitencia gogorrac aren eguiteco bacarrac ciran: eta erregatic, ta ceren Paulo;

ta Aioa beſtela bici ciran, ta orien jolas, fieſta, ta peligroetan Santuac ibilli nai etzuen, biac aguitz perſeguitcen zuten. Ereje deſdichadu onen echean eraman cituen tormentu gogorretan, Jaincoa, ta bere Ama ſantiſsima Santuaren amparo ſeguruac izan ciran. Jaquiña zan, eſtudiora baño len, ta ori acabatu ta bereala, Echean Oracioan ezpacegoen, gure Eleizan, Jaunarequin atſedeten: ta gozatcen, edo Echeco pelearaco armatcen arquituco zala. Orregatic Anaiaren, da Echecoen guerra bicia egunoro, ta andiagozan.

13 Gaizqui eſaca piſuetatic eſcuazco tratu gaiſtoetara igarozan,

eta

eta Anaia galduac, Jaincoaz azturic, ceren munduco gaucetara Estanislao ecin arraſtatu zuen, arraſtaca, ta golpeca erabiltcen zuen: eta Aioac Santua amparatu bearrean, aren contra deadar gogorraquin biurtcenzan. Tormenta deſeguin onetan oracio gueiago, ta penitencia andiagoac eguiten cituen. Fieſta zoro, ta jolasetara beſteac bezala cijoala, Anaiaz eſaten cion. Baña Santu jaquintſu edo Ainguеruac eranzun oicion: ,, Ni eznaz ,, lurreco gauzac gozatceco; ez- ,, pada ceruraco eguiña. ,, Onela Jaunarequin bere erretiroan pocic arquitcenzan. Neque pitu cietan, tratu gaiſtoen, ta penitencia arri-

gar-

garrien artean Jaincoac bere Santuchoa gaitz andi batequin probatu zuen, erregalo andiagoac guero eguiteco.

14 Gaitz orrec chit azpiratu zuen, ta añ biciro, non da aren biciaz etsizan: eta bere Aioac gau ta egun, amar egunean aren buruco aldetic aldeguin etzuen. Ori baño len Anaiac, ta onec chit afligitu zuten, ta deadarca esaten cioten, berac zuela culpa, bere barau, ta rigore eragabeaquin ala eriotzara bere burua ecarri zuela. Iltececo zorian cegoen: bere Jesus amorosoa Viaticotzat, edo ceruco bideraco artu naizuen. Escatu, ta arteeco aleguiñac

 egui-

eguiten cituen; baña alperric; bada Luterano itsuac nai etzuen. Desgracia onec, ta Anaiaren, ta Aioaren peligroac, bere gaitzac baño ere gueiago estutcen zuten. Naigabe onetan deabruac aren anima garbian parte edo lecuric etzuela icusi, eta arzanora, edo zacur amorratu itsusi baten figuran etorri, ta Santua ito naizuen. Baña Gurutzearen señaleaz bereala quendu zuen: bigarren, da, irugarren aldian infernuco zacurra aguertuzan; baña bere Jesus onaren armaquin bereala ondatu zuen.

15 Santuac Eleizacoac nai cituen. Lurreco desengañua icusi, ta bere Ama santisimagana biurtuzan,

ce-

ceren onen devocio, ta amorioaz bicizan. Ama Virgiñaren Congregacioco Estudiante Nobleen Prefecto, edo Buru Estanislao zan, guztien artean estimatuena bezala. Virgiña Sta. Barbara dute bigarren Bitartecoa, ta Estanislaoc urteco Santa zuen: ta onen egunean devocio guztiaz confesatu, ta comulgatuzan escatcen ciola Sacramentuac artuaric, bere anima Jaunari emateco faborea. Eriotzaco estutasunean ori bera Santari, ta Ama Virgiñari escatu cion, ta bereala aditu zuten.

## §. ESTANISLAOREN CERUCO erregaloac.

16 ORacio au eguiten cegoela icusi zuen, nola Santa

ta Barbara Virgiña ederra Aingueruaquin batean cetorrien, ta Ainegueru batec Estanislao comulgatceco Santisimoa bere escuan cecarren. Ceruco glorian bacegoen bezala, santua animatu, ta prestatuzan, eta Aioari esan cion: belaunico jarri zaite. Ainguerauac ni comulgatceco gure Jauna dacarte. Aioac Arrituric iru bider: *Domine non sum dignus, &c.* aditu zuen: aoa idiquitcen, ta ichitcen icusi zuen. Santua ceruco soseguan gueratuzan, fabore argatic bere biotzean esquerrac Jaunari ematen: eta orra bertan gracia, ta fabore berria.

17 Ainguerren Erreguiña bere

re

re Seme Divinoa besoetan zuela
etorri citzaion, da Jesus bere se-
mea Estanislao maiteari erregaloz
bere escuetan eman, da utci cion.
Luzaro erregalatu, ta esan cion:
Ene Seme Estanislao, Jesus nere
Semearen Compañian sarzaite. Bi fa-
bore paregabe oiequin gloria bi-
cian gueldituzan: eta bertan ce-
ruco osasuna, ta indarra artu zuen.
Ama Virgiñaren esana bereala eguin
naizuquean: aleguiñac eguiten asi-
zan, da bere Confesoreari contu
eman cion. Baña Eche andietaco
Semeac Jaincoa serbitceco, edo
Religioan sartceco arazo, ta em-
barazo andiac oi dituzte. Ala Es-
tanislaoc alde gucietatic, ta gura-
so-

ſoen erreſpeto , ta bildurragatic izan cituen.

18 Ate, ta bide guztiac ichiric icuſten cituen, ta aleguiñic bicienac eguin ezquero, Padreac artuco etzutela an ezagutu zuen. Bitartecoric poderoſoenac ere etcioten balio. Orduan biotz guztitic Jaincoagana biurtuzan, bere oracio luceago, ta penitencia andiagoaquin: barau, ta azotez bere gorpatz inocentea deſeguitzen zuen: ta bere pena, ta deſeoen artean, Ama Virgiñaren eſana eguiteco, Voto andi bat Jaunari eguin cion; eta biaje, ta neque guztien coſtuan bazan ere, Compañian ſartuco zala. Echeco guerra bicia

beti

beti bezala, eta Pauloc jaquin zuenean, lengo penitenciac berrirotu cirala, tratu charra, ta gaiſtoa ematen cion. Onezaz, Jaincoac lagundu ta igues eguiteco, ta munduaren cabuan bazan ere bere Votoa cumplitceco bide ſegurua Santuac artu zuen.

19 Egun batean Paulo chit ceaſerre, ta aguitz'gaizqui eſaca cegoquiola, ceruco reſolucio batequin Eſtanislaoc eſan cion. ,, Nic
,, eztaquit Anaia bat orrela tratatceco, cer motivo dezun. Nic
,, aleric ematen eztizut: eta alere beguiz ecin icuſi nazu: azquenean zure beguietic igues eguitera obligatuco nazu: ta guero

,, nere

,, nere Aitari , ta Amari zuc con-
,, tu eman bearco diezu. ,, Pau-
loc , alacoric izango etzalaco , utci ta aldeguin zuen. Baña Santuac Jaunari chit gogotic erregutu , ta Padreen cartac artu , ta Paper bat ſcribitu , ta Ayoac icuſteco Libru batean utci zuen. Peregrinoaren ſoñeco bat preſtatu , ta iſilchoric bere biagea eguiteco animoa artu zuen. Confeſatu , ta comulgatuzan : ta gau gucia oracion igaro, eta egun ſentian Echetic irtenzan.

20 Ainguerua lagun zuela, egun artan gure amalau legoa ibillizan. Era onean pobrecho bat topatu zuen , da ari bere ſoñeco ederrac eman , da Peregrino jan-

cizan. Echean nola aguiri etzan, ta ez Colegioan, da ez errian, Paulori esan cion arrazoietic, ta Santuac lagun on bati señalatu Alecion Paperetic ezagutu zuten, Alemanian Compañian sartceco moduric ecin arquitu, eta Augustaronz joan zala. Paulo ta Senadorea, Aioarequin Coche batean sartu, ta Zaldiac itotcerańo arin jarraitu cioten. Santuchoa cijoan lecura allegatu ciran, ta emen marabilla bi icusi ciran. Bata: Santua nola Peregrino jancia cijoan, icusi, ta ere ezagutu etzuten; eta berac ezagutu cituen. Jaincoagana bere amparoaren esque biurtuzan: eta orra non Zaldiac ez atcera, ta

ez

ez aurrera bertan gueldìtu ciran.

21 Beſte marabilla: Peregrino Santuaç igues eguiteco, alde batera artu zuen, ta cijoan bidean ibai andi bat igaro bear zuen. Camareroac arriturìc icusi zuen, nola Santuchoa leorrean baliz bezala urtan ibaiean cebillen, ta igarozan. Prodigio oiec icusi, ta etſiric, ta itſuturic bezala guztiac echera biurtu ciran; eta Santua Auguſtara igarozan. Bidean erricho batean Eleiza idiquia arquitu zuen, eta Meza enzun, ta comulgatceco deſeoaquin bere uſtez ſartuzan. Baña Luteraoena zala, laſter ezagutu zuen. Orien deſdichazco Jaunaren ofenſacgatic, ta ceren

Meza, ta Comunio ſantua ecin cituen, negarrari eman cion, ta bere biotzeco deſeoac Jaunari eracutſi ciozcan: eta orra.

## §. ESTANISLAOREN CERUco erregaloa.

22 SAntua oracio onetan cegoela, fabore, ta erregaloric andiena artu zuen. Ceruco Miniſtro, edo Aingueru aſco cetocela icuſi cituen. Batec Santiſimoa, edo comulgateeco Forma cecarren, ta Eſtanislao nola edercequi preſtatua cegoen, reverencia andiaz Comunioa eman cion, eta Ainguruac bere dicha guztiarequin

quin utci zuten. Santuac bere biotz guztico graciac eman ciozcan, eta janari divinoac indarrac emanic bideraco animatuzan. Aita Canisio Provinciala arquitu, ta cartac eman ciozan. Dilingaco Semiinarioan, Novicio, edo Criaduric umillenaren egemplo ederrac eman cituen, eta Jesuita gazte birequin S. Franciscu Borjagana Erromara bialduzuen, ta bere Lagun dichosoaquin, ara allegatuzan. Irureun legoaren aldean oñez, ta nequez gure Peregrinoa ibillizan; baña gucia pocic bere deseo santua cumplitceagatic.

23 Erroman bere burua S. Borja Generalaren besoetan icusi

zue-

zuenean, aren biotzeco gozaldia norc esan dezaque? Irugarren egunean, ceñean amazazpi urte betetcen cituen General Santuac gure Compañian Santuchoa artu zuen, eta Noviciaduco Erreglac eracusteco lagun eman cion Duque Atriren Seme Claudio Aquaviva, oguei ta amalau urtean guero General izandu zana. Onec S. Franciscu Borjari esan cionez, berac, eta lagun guztiac, Santuchoan cer icasiric asco izandu zuten. Jaunaren escutic eguiña bezala Religioco egercicio gucietan besteen artean señalatcenzan.

24 Bere vocacioco espiritu, ta indarra probatceco, tentacio asco

aſco ta andiac izan cituen : eta Religiotic ateratceco ala cariñozco, nola aſerrezco Aitaren cartac: eta Jaun andi baten viſita aitzaquian batetic, eta beſtetic guerra bicia. Guztiai modeſtia, ta erreſpetoaz, baña ceruco reſolucio ſendoaz eranzun cien, ta Jaunaren graciaz munduco tentacio, ta arazo guztietatic libratuzan; ta bere centro edo ceru bician bezala ſantua arquitcenzan. Guztiraco egoquia bezala, guztian ederqui ſartu, ta ertetenzan : bere ſantidadeagatic gucienzat chit on iritcia, ta chit onetſiazan.

25 Comandini Cardenala bere adiſquide andi Eſtanislao içuſ-

tera etorrizan : bere cariñoac cecarren. A. Erretoreac gaztigatu cion, Cardenal Jaunari obra gaiſtoric, ez eguiteagatic, bereala cetorrela. Santuchoa ſucaldean ontciac garbitcen arizan, ta cegoen bezala zapi zatarraquin arin joanzan. Ea ala cetorren, Erretoreac eſancion. Santuac eranzun cion: Bereala etortceco eſan didate, ta obeditceagatic, nengoen bezala etorri eguindet. Beſte beñ Claudio, ta Eſtanislao Cocinariac egur eſque bialdu, ta eſan cien: onembeſte egur bacoitzac ecarzute. Eſtanislaoc bereac contatuac artu cituen. Lagunac eſan cion: ariñac dira, ta ſucaldean falta eguiten,

du-

dute : gueiago eraman ditzagun. Santuac orduan : Nic ez gueiago : falta ori Jaincoac erremediatucodu. Naiagodet nic obeditu, ta Jaincoaren esana ondo eguin.

26 Onela munduaren desprecioan, umildade, ta obediencian aurreratuzan, ta chit mea, ta puntuala izanduzan. Oien, da beste virtuteen Ispilu bici bat Lagunac Santuan cecusten. Religioso luzaro izandu baliz bezala, aren Pobreza munduco pobreena beti icusi baliz bezala. Aren Castidadea pribilegiatua, araguí, edo gorputcic ezpazuen bezala ; ta ori bazuen, bacarric zuen, bere gorputz inocentea, barau, azote, cilicio, ta beste pe-

coa,

nitenciquin urratu , ta deseguitceco. Aren modestia Ainguera antcecoa , ta orrela tratu guztia. Estanislao icustea ceruco Serafin bat araguiz janci , edo estaliric lurraren gañean icustea zan.

27 Sacramentu divinoaren , da Ama Virgiñaren devocioan , esan al baño gueiagocoa zan : bien amorioz erretcen zan , ta bien miñez beti iltcen bicizan. Bietatic cer faboreac , cer erregaloac , cer suac , eta garrac , cer visitac , cer argui divino , ta estasis gozoac ! Jesus , ta bere Ama maitearen amorez irazaqui , ta urtutcen zala Santua , guztiac cicquiten. Alaco biotzeco suac ascotan ematen cio-

ten , non da cordegabe gueldit-cenzan , ta ill etcedin zapi ur otcetan buſtiaquin aren biotzari ſocorru eman bear citzaion. A. Manuel Sa cijoan beñ Eſtanislaorequin , ta Ama Virgiñari aſco nai cion galdetu cion. Ai! Aſco naico eztiot bada , nere Ama maitea bada ? Santuac eſan cion. Bereala Ama Virgiñaren ſugar amoroſoac Santua artu zuten , ta au beregana biurtcea A. Sa Maiſuari ondo coſta citzaion.

28 Compañian Sartuzan ezquero , Jeſus , ta Maria beſte Aita , edo Amaric nai etzuen , ez eta lurrecoen gauzaric aditu ere. Aren izquetac ceruco gaucen ga-

ñean ciran beti: eta bere modestia Virginalaz batean chit berariazco gracia Jaincoac eman cion, egoquiro, ta guztien gustora ederqui itz eguiteco. Baña Santuchoaren gustoric andiena Ama santisimaren egcelencien gañean itz eguitea zan, eta onetan bere pareric etzuen. Eztizco erregaloetan cegoen orduan. Ori lagun guciac ondo ciequiten; eta aren consuelorraco, ta gucien probechuraco, Ama Virgiñaren gauzaren bat berariaz asitcen zuten, Ainguerubat eguiñic Estanislao aditceco. Bere Ama santisimagandic Seme maiteac bezala, nai zuen gucia alcanzatceen zuen. Orregatic No-

vicioen Maisuac esan oi zuen: Omnipotentea da Estanislao, edo nai duen gucia bere escuan dauca. Orregatic beste Novicioac beren Escari, edo Memorialac Estanislaoren escuetatic, edo onen bitartez, Ama Virgiñari, ta Jaincoari presentatu nai oi cituzten.

29 Bere Santidade andiagatic Maisuac, eta Novicioac onela beguiratcen cioten: eta beste marabillen artean miragarria da Novicio, berearen adisquide bati guertatu citzaiona. Onec Jaincoa bere biotz guztiaz amatu, ta serbitu nai zuen; baña tentacio gogor batec chit aguitz afligitcen zuen, eta ori ecin quendurie

chit eſtuan cegoen. Oracio, diciplina, cilicio, ta beſte penitencia aſco eguiten cituen; baña ecin libratuzan. Azquenic Eſtaniſlaoren virtute, ta poderioa ondo ciequienac bezala, Santuari bere animaco pena gucia contatu cion. Eſtanislaoc orduan bere Adiſquide ori artu, ta Ama Virgiñaren Aldarera eraman zuen: aren aurrean biac oracioan jarri ciran: eta Eſtanislaoc bere Ama maiteari beguiratcea, ta laguna tentaciotic libratcea, guztia bat izanzan: eta anima afligitu ura ſoſegu andian, ta Jaunaren paquean betico gueratuzan.

30 Santuchoac onela guztien

beguiac, eta biotzac miragarrizco bere bicitzaz bereganatcen, ta echizatcen cituen lurrean; baña Jaincoac bere prenda, ta joia estimatua bezala, berequin nai zuen ceruan. Gende gazteen, da Novicioen Ispillu biciaren Aingueruzco oficioa chit ederquiro eguin zuen, ta Noviciaduco amar illa bete cumplitu baño len, cerua Estanislaoz zaletu, edo enamoratuzan ta Jaunac bere gloriara eraman zuen. Ceruraco sazoi ederrean Estanislao arquitcenzan, ta Jesus maiteac eta bere Amac beren ceruco Compañian icusi nai zuten.

## §. SANTUAREN ERIOTZA, ta Milagroac.

31 ABustuaren lenengo eguncan Aita Canisio Maisu andi, ta Estinaslaoren ezagunac Platica ferboroso bat Novicioai eguin cien, ta ori aditu ta bereala Santuchoac, lurreco cateetatic libratu, ta ceruraco egoac artu nai izan cituen: egun aietan lagunai esaten cien, arenzat Platica ura izan zala, ta ala iltceco, ta ceruraco prestatu nai zuela. S. Lorenzo visperan diciplina Erresitorioan artu, ta Padre, ta Novicioai oñetan mun eguiten umildade guciaz ibillizan: bere culpac

pac eſan, ta limoſnaz eſcatu, ta mai pean jan zuen. Penitencia andiagoac eguin nai cituen; baña Maiſuac larga etcion. S. Borja Generalac illoroco Santuac gure Bitartecotzac artcea guztioi ipiñi cigun, eta Eſtanislaori S. Lorenzo ill onetan guertatu citzaion.

32 Gau artan Jaunaren amorioz, ta Ama ſantiſima ceruan icuſteco deſeoz itſutua bezala, erreparoric ecertan arquitu gabe, carta guciz amoroſo bat bere Ama, maiteari eſcribitu cion: biotz guztitic eſcatcen cion bere Aſuncio, ta Coroacioa ceruco glori an celebratcera, arren eraman cezala. S. Lorenzo egunean comulgatceco,

co, Ama Virgiñaren Memorial, edo carta ori colcoan eraman zuen: eta Jesus Divinoa Comunioan artu, graciac eman, ta Ama santisimari amorezco egoaquin bere biotza, ta carta bialdu ciozcan. Egun artan licencia escatu, ta Sucaldean laguntcera joanzan. Ango Sua icusi, ta S. Lorenzoren, parrilletaco tormentura bereala igarozan: ta aren amorio divinoan pensatcen eegoela, amorezco suac, eta garrac artu zuten, ta bertan Santuchoa corde gabe guelditzuzan.

33 Oiera bereala eraman zuten, ta bere cordera zanean, ceruco berri onac, eta mandatua zuenac bezala, claro esan zuen: Nic

Nic onetatic ill beardet : emendic jaiquico eznaiz. Nere Ama ſantiſimaren Feſta celebratcera joan beardet. Ala izanzan. Medicuac ecer etzala cioten, baña Santuac, baietz, eta Sacramentuac bereala eſ. tu eſcatu cituen, ta Airgueru baten guiſa artu cituen devocio chit andiaz. Aita Erretoreari eſcatu cion, lurrean illtcen arren utci ciozala, eta azquenic bere eſcari ta erregu umillaquin colchoi, edo oial batean lurrean Santiſimoa artu, ta ari bere anima eder garbia ſeculaco ematea logratu zuen. Onela Jaunari graciac, eman, da izqueta chit gozo, edo coloquio amoroſoac ala Jeſus onari, nola

Ama maiteari eguin ciezten, eta an ceudenac aren devocioaz admiratcen, ta choratcen ciran.

34 Oleacioa berac escatu, ta artu, ta Ledaniac ederqui berac eranzunaz enzun cituen. A. Erretoreac esan cion: ea prest, eta Jaunaren vorondatearequin batean cegoen? Ceruco modura. Santuchoac eranzun cion: *Paratum cor meum Deus, paratum cor meum*: prest dago. Jauna, nere biotza: zure vorondatea eguiteco prest dago. Guero estasis andi batean luzaro egonzan;eta Virgiñen Erreguiña bere Ama maitetsua, Virgiña eder ascorequin visitatcera etorri citzaion, ta arpegui chit aleguere batequin egonzan: eta

be-

beregan cegoela, Asuncio goiceco irugarren orduan paque gozoan gueldituzan: eta cerura joan, edo ill ta ere, bicia bezala cegoen. Onela Ama Virgiñac Estanislao laztana bere Coroacioa celebratcera cerura eraman zuen: onelaco egunean ceruco Erregueac bere Santuchoa gloriaz ta onraz coroatu zuen.

35. Ceruan betiro bicitceco lurrean iltzan, milla ta bosteun ta iruroguei ta zortzigarren urtean: amazazpi urte, ta bederatzi illac beteac cituela, ta amar illa beteco Novicioa zala. S. Estanislao izanduzan Erroman S. Andresen gure Noviciaduan lenengo iltzan Novicioa. Jaunaren gloria, ta gure

re

re onra andia: ceruraco Primicia
estimagarria, ta estreña paregabea.
Beste Religio santuen artean ezta-
quigu, ceñec Erromaco, edo bes-
tetaco beren Novicioen artean,
aurrena iltzana, S. Estanislao be-
zala, Santu canonizatua daucan.
S. Francisco Sales suaveac dio, Es-
tanislao Jaincoaren amorioz iltzala,
edo amorezco miñac acabatu zuela.

36 Ill da bereala Santu onen
ospe, edo famac alde gucietara
Sanbolatu zuen: alacoa zan aren San-
tidadearen usai gozoa; eta alacoac
ciran egunoroco Estanislaoren mi-
lagroac. Bigarren urteco Santutzat
gendeac artu, ta iduqui zuten.
Bere devotoaquin mirari andiac
egui-

eguiten cituen : oien artean an- diena bezala esan diteque, Anaia Paulo bere perseguidorearen e- guiazco conversioa. Au Jaincoaga- na chit biurtuzan : bere Estanislao onela icusi, ta penitencia andia, ta biciera santu bat artu zuen. Jaunaren piedadea, ta pecatuen barcacioa, Anaia Bitarteco zuela billatu naizuen. Santua Aldarean icusi, ta negar, da deadar egui- tencion : aren aurrean belaunico, ta odolezco azoteaquin bere bu- rua urratcen zuen. Nere Anai San- tua, esaten cion : Anai santu maitea! Zure perseguidore oni barca zaio- zu : eta nigatic erregu ezazu. Bar- ca zadazu niri : niri, aimbeste

gol-

golpe, ta tratu gaiſto zuri eman nizun orri. O! cer milagro andiagoric! Onela Paulo bici izanzan, ta Anaia Santua bezala, Compañian ſartceco licenciarequin cerurazan.

37 Eſtanislao canonizatceco Proceſoac Italian, Polonian, Alemanian, Eſpañan, Francian, ta lecu aſcotan eguin ciran; eta bere lagunac, ezagunac, ta beſte aſcoc aren milagroac icuſi, ta aren faboreac artu, ta contatcen cituzten. Santua gordea, bazterchoan ſartua, erretiroan eſcutatua bezala bicitzan egonzan; baña ill da bereala aren umildadearen gloria, eta marabillen uſai ſua-

bea

bea aguertu , ta banatuzan. Nola guztia beretzat bicitzan izanzan; ala ill ezquero guztienzat guztia eguinda. Santua cerura, ta bereala aren Bicitzaco Libru bi, virtute, ta milagroen gañean irten ciran. Oiec egunoro , ta gueiago, ta andiagoac ciran. Marabilla oiec aditu, ta icusi, ta Aita Santu Urbano VIII. ac esan zuen. „ Estanislao gastechoa, da Aur chiqui „ bat; baña Santu chit andi bat.

38 Onen Bicitzac diotenez, Erromatic asi , ta lecu gucietan bere devotoen fabore animaco peligroetan, da gorputceco gaitcetan , Milagro guciz asco , ta chit miragarriac Santuac eguin ditu.

tu. Milagro asco aurguitetic gaizqui ceuderaquin. Milagro asco peste edo izurriaren peligroetan. Milagro asco suaidi, incendio edo erretceco peligroetan. Milagro asco Poloniaco bere Erreinoa amparatcen: eta Patroi poderosoa bezala Turcoen, da beste etsaien contra S. Estanislao gloriosoa airean bereen fabore icusi izanda. Milagroac eriac sendatcen, ta illai bicia ematen: Asco resucitatu ditu: emezortci esan oida: eta onelaco beste prodigio asco. Eta ona, Iracurlea, gazteen Ispillu eder cerucoa. Ona dembora guchian ceru asco, ta gloria andia irabazteco bidea. Ona ceruagatic Gurasoac, ta lur-

reco gauzac utciteeco egemplo ederra. Ona Jaunaren vocacio, edo deiari ondo eranzuteco, ta orregatic neque guciac igarotceco, eta bicitza, ta eriotza santu bat eguiteco Lecioa: S. Estanislaori bere virtuteetan zuc jarraitu lurrean, aren Lagun zu izateco ceruco glorian. Amen.

## SAN LUIS GONZAGAREN BEderatciurrena.

DEvocio onetan besteetan bezala, obsequio, edo amorizco señaleac eguiten dira. Oiec dira bederatci eguunetatic batean, edo asiteeco, ta a sacatceco eguneian confesatu, ta comulgatcea, limos-

mosnaren bat, eta penitenciaren bat, ta orrela besteac eguitea, santuaren onran. Ciñatu, ta beti Contricioco actua eguin, ta egunoroco Oracioarequin asitcenda onela.

## EGUNORO ASITZECO ORAcioa.

SAn Luis Gonzaga gloriosoac Jesusen Compañiaco Ainguerú milagrosoa, ta Gende gazteen Bitarteco poderosoa. Baldin Jaincoaren gloriaraco, ta zure onraraco bada, Bederatciurren onetan guc escatcen deguna, alcanza zaguzu gracia ori; ta ezperen gure salvacioraco bearren degun guztia.

# LENENGO EGUNECO ORAcioa.

JEsus maite, zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederra, añ gazteric, zure Misterio divinoen, ceruco Fede, ta argui biciaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Santucho oni eman ciñion Fede bici devocioz bete bat, S. Luisec bezala, Religioco Misterioac ondo ezagutu; ta siniſten deguna, arc bezala gure obretan beti gordetceco; eta Bederatciurren onetan eſcatcen degun ſaborea, gure ſalvacioraco baldin bada. Amen.

*Guero iru Pater noſter, Ave Maria, ta Gloria.*

EGU-

# EGUNOROCO ORACIOA.

SAn Luis, Principe, ta Jaun andi Jaincoac eguin cinduena, eta lurreco Anditasun, da Ondasunac, ecer ez bezala largaric ceruco Prìncipe Milagroso izateco, Ama Virgiñac Seme laztanari bezala, Jesus bere Semearen Compañian sartcea aguindu cizuna. O mirarizco Ainguerù, Religioco Dizure sei urteetan Jesus Maisu Divinoari, bere pobreza, umildade, mortificacio, ta amorioan, añ gogotic jarraitu ciñiona! Virtute gucien Ispillu eder zure anima eguin cenduen, ta Ainguerù guisa egaca çerura igo, ta zure Devotoac mundu gucian milagroz beteteen

asi

aſi ciñan. Atſeguin andi bat degu, zu orren glorioſo icuſteaz : eta bada guc ere, zure Adiſquide Devotoen artean ſartu nai degu. Arren izan zaite, ò S. Luis maitea, Jaincoaren aurrean, gure Bitarteco poderoſo, zure virtuteetan orañ jarraitu, ta beraren gracian bici, ta eriotza on bat zure amparoan logra dezagun : eta Bederatciurren onetan eſcatcen degun faborea, gure ſalvacioraco baldin bada. Amen.

*Emen, fede, ta confianza andiaz bacoitzac Jaunari bere biotza jaſo, ta S. Luis Bitarteco arturic, naiduen, edo bearren duen faborea eſcatucodu : eta guero eſatenda azqueneco.*

ORA-

## ORACIOA.

JEsus amoroso, zure Ama santisimaren consejuz, S. Luis gozoa zure Compañiara ecarri, ta bere Gorputz ta Animaco garbitasunean Ainguerüen antcecoa, ta zure Amaren devocioan, ta Aldareco Sacramentu, edo zure Biotzeco amorioan Santuen artean chit señalatua, ta Gazteen Ispillu ederra eguin cenduena. Gure animetaco garbitasuna, ta zurequin zure Amaren eguiazco devocioa, arren iguzu, S. Luisec bezala, guc ere Zu beti servitceco, ta arequin ceruan alabatceco. Amen.

*Edo devocioaz naiago badezu, ela onetan esazu.*

*Aña.* S. Luisec mundua, ta lurreco gauzac utciric, gucien gañean jarriric, eguiazco ondasunac obra onaquin ceruan gorde cituen.

℣. Jaunac bide zucenetatic Luis eraman zuen.

℟. Eta Jaincoaren Erreinoa eracutsi cion.

ORACIOA.

GUre Jainco Ondasunen Emallea, ceruco doaiez Santuac betetcen dituzuna: eta miragarrizco inocencia arrigarrizco penitenciarequin Aingueru S. Luisegan batu cenduena. Onen meritu, ta erreguacgatic iguzu, bere inocencian jarraitu eztiogunoc, eguiazco

co

co penitencian jarraitceco gracia. Amen.

*Beste egunetan orobat, ezpada bigarren oracioa, ta da urrengoetatic bat.*

## BIGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEsus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederra añ gazteric ceruco Ondasunen, ta zure Gloriaren Esperanza firmeaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Santucho oni bezalaco Esperanza andibat: bicitza santu batequin zure Ondasunac bacarric, S. Luisec bezala billatceco, eta gure obra onaquin

zure

zure Promesen diña izateco : eta Bederatziurren onetan escatcen degun saborea, gure salvacioraco baldin bada. Amen.

## IRUGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEsus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederra añ gazteric zure Ontasun singabearen amorio irazaqui gozoaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Santucho oni bezalaco zure amorio guztizco bat, guc ere Zu, gure Jainco bacar guztiz Ona, gauza gucien gañean, ta biotz guztitic, S. Luisec bezala, beti amatceco: eta Bederatziurren

onetan escatcen degun saborea, gure salvacioraco baldin bada, Amen.

## LAUGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEsus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure santuen Lore ederra añ gazteric zure Amore Divinoac bere Progimoen eguiazco Caridaderic bicienaz apañdu zuena. Arren iguzu Jauna, Santucho oni bezalaco gure Progimoen caridadea, S. Luisec aiecgatic bere bicia pocic eman zuen bezala, gue ere, ill arteraño Progimoac zugatic amatceco. Eta Bederatziurren onetan escatcen degun saborea, gure salvacioraco baldin bada. Amen.

BOST

# BOSTGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEſus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederra añ gazteric Paciencian zure antcecoa eguin, eta Zuc nai ciñituen gurutzeac zure ondoren biotz onaz eramateco apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Santucho oni bezalaco Paciencia ſendo bat, lurreco neque, ta gurutzeaquin, zure ondoren, S. Luis bezala ibilli, ta ceruco gloria irabazteco: Eta Bederatziurren onetan eſcatcen degun faborea, gure ſalvacioraco baldin bada. Amen.

# SEIGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEſus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuēn Lore ederra añ gazteric Oracioaren Doai divinoaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Santucho oni bezalaco, Oracioaren argui, ta gracia, biotzetic, eta devocio guztiaz, S. Luiſec bezala, beti Oracioa eguiteco, ta ceruco guiltza onequin zuri ondo eſcatuaz, zure Ondaſunen Ateac idiquì, ta bear deguna alcanzatceco: Eta Bederatziurren onetan eſcatcen degun faborea, gure ſalvacioraco baldin bada. Amen.

# ZAZPIGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEſus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederra añ gazteric arrigarrizco Penitencia, ta mortificacioaren eſpirituaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, gure pecatuen penitencia eguiteco Santucho oni bezalaco indarra, eragabeco gure gogo, ta paſio gaiſtoac, zure graciaz, S. Luiſec bezala, beti ucatu., ta Zuc naizun bezala, zure vorondateari ſujetatceco: Eta Bederatziurren onetan eſcatcen degun faborea, gure ſalvacioraco baldin bada. Amen.

# ZORTZIGARREN EGUNECO ORACIOA.

JEsus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederrra añ gazteric Aldareco Sacramentuaren amorio divinoaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Sacramentu adoragarri onen ta zure Biotzeco amore ondogabearen eguiazco ezaguera, ta amorioa S. Luisec bezala zure Biotz Divinoa ascotan visitatu, ta zure Aldarean beti adoratceco: Eta Bederatziurren onetan escatcen degun faborea, gure salvacioraco baldin bada. Amen.

# BEDERATZIGARREN EGU-NECO ORACIOA.

JEſus maite zure Santuetan Miragarria, S. Luis zure Santuen Lore ederra añ gazteric zure Ama ſantiſimaren devocio, ta amore paregabeaz apañdu cenduena. Arren iguzu, Jauna, Santucho oni bezalaco zure eſcogituen doai, ta ſeñale au: eta nola Virgiña Amac Seme erregalatuaren icenarequin, S. Luis zure Compañiara deituzuen: ala gu ere zure Amac bere Mantupean artu, ta zure amoriora ecarri gaitzan: Eta Bederatziurren onetan eſcatcen degun faborea, gure ſalvacioraco baldin bada. Amen.

SAN

# SAN ESTANISLAO COSCA, Jesusen Compañiaco Novicioaren Bederatziurrena.

*Beste Devocioetan bezala, ciñatu, Contricioco actua eguin, ta*

## EGUNORO ASITZECO ORACIOA.

SAn Estanislao gloriosoa, Poloniaco Ainguerua, ta Jesusen Compañiaco Serafin gozoa: Jainçoaren gloriaraco, ta zure onraraco baldin bada, egun oietan guc escatzen deguna: alcanza zaguzu Jaunagandic gracia ori; ta ezperen gure escaria zuzen ezazu, ta esca zaiozu

 be-

berari gure salvacioraco ondoen dagoquigun guztia.

## LENENGO EGUNECO ORACIOA.

AIngueru gucien Jauna, ceñai guizonac gordetzea zure Ontasunac aguindu dien. Espiritu Soberano oien merecimentuac ofrecitzen dizquizugu, ta Estanislao Novicio Santuchoarenac, ceña animan, ta gorputzean Aingueru eder garbi eguin cenduen, eta Poloniaco Erreinoaren Aingueru Goardiacoa. Onen bitartez gure animaco garbitasuna arren iguzu, eta egun oietan escatzen degun faborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

*Iru Pater noster, Ave Maria, ta Gloria: eta guero esatenda.*

## EGUNOROCO ORACIOA.

SAn Estanislao, Jesusen Compañiaco Novi cio miragarria, gazteen ceruco Ispillu garbia, ta Jaincoac bere doaiaz apañdu cinduena: bada bere Compañian sartzeco deseo irazaqui bat eman cizun: eta dicha ori neque andien costuan logratzeco egarri bici bat, Aldareco Sacramentuaren elan al baño amore andiago bat, paregabeco Ama Virgiñaren devocio gozo bat: ta umildade, paciencia, ta beste virtuteaz bete cinduen. Jaincoac zure anima

ceruraco lasterca prestatzeco eman ciozcan doai eder oiecgatic, arren lagun zaguzu virtute orietan zuri beti jarraitzeco, paquezco bici on bat, ta Jaunaren amorean, ta zure amparoan eriotza on bat eguiteco, eta egun oietan escatzen degun faborea gure salvacioraco baldin bada. Amen.

*Emen fede, ta confianza guciaz bacoitzac Jaunari bere biotza jaso, eta S. Estanislao Bitarteco arturic, naien duen faborea escatzendu. Guero esatenda azqueneco Oracioa.*

*Aña*: Jaunaren Aingueruac Estanislaori ceruco janari Divinoa ecar-

rí, ta esan cion: Ea, jan ezazu, orandic bide lucea daucazu.

℣. Janariaz indar divinoa artu zuen.
℟. Eta bere biajea chit ondo eguin zuen.

ORACIOA.

JAun soberano zure Estanislao maitea bere bidean Ainguerua-ren escutic zure Sacramentu Divinoaz erregalatu cenduena. A-ren biotzeco garbitasuna imitatzeco arren iguzu gracia, zure amorezco Sacramentua artzeco diña eguin gaitean, eta onen bidez ceruco bi-citzaren bidean beti ibilli gaitean Amen.

Bes-

*Beste egunetan orobat eguitenda, ezpada.*

*Bigarren Oracioa, eta da urrengoetatic bat.*

## BIGARREN EGUNECO ORACIOA.

ARcangel gucien Jauna, ceñai zure gloriaco eguitecoric andienac aguintzen dieztezun. Oien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanislao Novicio santuchoarenac, ceñac bere bicitzan, eta orañ cerutic zure gloriaric andiena beti billatzen duen: onen bitartez escatzen dizugu, gure gauza gucietan zure vorondate santua guc beti billatzeco gracia eta egun oietan escatzen degun faborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

IRU-

# IRUGARREN EGUNECO ORACIOA.

AIngueru Principaduen Jauna, ceñai Erreinoetaco contua, ta amparoa aguintzen diezun. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanislao Novicio Santuchoarenac, ceña Poloniaco Erreinoaren Gobernari, ta Bitarteco eguin cenduen: eta oncgatic gure animaco Erreinoa, ta onen alceguin, ta gauzac zure Leguean ondo gobernatzeco gracia iguza, ta egun oietan escatzen degun faborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

# LAUGARREN EGUNECO ORACIOA.

AIngueru Poteſtadeen Jauna, ceñai deabruac ſujetatzeco poderio chit andia eman ciñien. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Eſtanislao Novicio Santuchoarenac, ceñac Jeſuſen Icenarequin deabruac ondatzen cituen: eta onegatic gure etſaien tentacio guztiac quentzeco gracia iguzu, eta egun oietan eſcatzen degun faborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

# BOSTGARREN EGUNECO ORACIOA.

AIngueru Virtuteen Jauna, ceñac zure graciaz Milagro andiac eguiteco escua daucaten. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanislao Novicio santuchoarenac, ceñac Milagro asco, ta chit andiac zure gloriaraco eguin dituen; eta onegatic escatzen dizugu, gure pasio, ta inclinacio gaistoac zure vorondateari sujetatzeco gracia, eta egun oietan escatzen degun faborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

# SEIGARREN EGUNECO ORACIOA.

AInguëru Dominacioen Jauna, ceñac beste Ainguëruen gañean daudela, gauza gucietan zure vorondateari beti sujeto dauden. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanislao Novicio santuchoarenac, ceñac zuri jarraitzeagatic, ta zure Compañian sartzeco alaco obediencia idu-qui zuen; eta onegatic escatzen dizugù zure Legue Santua gordetzeco bear degun obediencia: eta egun oietan escatzen degun faborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

ZAZ-

# ZAZPIGARREN EGUNECO ORACIOA.

AIngueru Tronoen Jauna, ceñetan zure gloriaco, ta atseguiñeco Jarlecua daucazun. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanislao Novicio Santuchoarenac, ceñaren Biotz garbian atseguin guciz andia ceneucan: eta onegatic escatzen dizugu, gure animaco garbitasuna, zuri gure bicitzan gustoa eman, ta zugan gure atseguiñ guztia izan dedin: eta egun oietan escatzen degun faborea, gure salvacioraco baldin bada. Amen.

# ZORTZIGARREN EGUNECO ORACIOA.

AIngueru Querubiñen Jauna, ceñac zure Jaquinduriaz bete, ta apañduric dauden. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanisiao Novicio Santuchoarenac ceñac bere oracioan, da zure contemplacioan Jaquinduria divinoa artu zuen: eta onegatic escatzen dizuguzu zure eguiazco jaquintasuna, edo Zu ondo ezagutzea: eta egun oietan escatzen degun saborea, gure oneraco baldin bada. Amen.

# BEDERATZIGARREN EGUNECO ORACIOA.

AInguieru Serafiñen Jauna, ceñac zure amore divinoaz irazaquiric beti amatzen zaituzten. Orien merecimentuac ofrecitzen dizquitzugu, eta zure Estanislao Novicio Santuchoarenac, ceña zure amorio gozoan erre urtu, ta ill arterano deseguinzan: eta onegatic escatzen dizugu. Zu gure Jainco maite bacarra gure biotz guztitic orañ, ta beti amatzeco gracia; eta egun oietan escatzen degun faborea, gure salvacioraco baldin bada. Amen.

GAU-

# GAUZEN ARQUIBIDE, EDO INDICEA.

SArrera, edo Santu bien Egcelenciac. 3
S. Luis Gonzaga, gazteen Ispillua. 7
S. Luisen Jaiotza ta aciera. 19
S. Luisen Becitza Florenciaco Cortean. 27
S. Luis nola Jesusen Compañiara deitu izanzan. 38
San Luisen Eriotza preciosoa 53
San Luisen Milagroac. 62
San Estanislao Coscaren Bicitza. 79
Santuaren Seminarioco Bicitza. 90
San Estanislaoren ceruco erregaloa. 107

*Santuaren Eriotza, ta Milagro-*
*ac.* 128
*S. Luisen Bederatziurrena.* 132
*San Estanislaoren Bederatziurre-*
*na.* 147

# LAUS DEO.